

GARBIÑE

Iru egintzetan eratutako antzerkia
eta 1916'garen urtean, Donosti'ko
Euzkel-ikustetan saritua :-: :-: :-:

Eleizegi'tar Katarine'k idatzia

TA

Donosti'ko "Euzkel-Izkundeko Uri-Eskola'k"

TAJUTU TA ANTZOKITUA

Tolosa'n: E. Lopez'en etxean
:-: :-: 1917'an. :-: :-:

BANAKETA.

<i>Garbiñe</i>	Ugarte'ko alaba	<i>Arieta andere</i>
<i>Lide</i>	Larain-jauregiko alaba	<i>Aranburu »</i>
<i>Mañu-aztia</i>	Itxura gaiztoko emakume zara	<i>Olaso »</i>
<i>Kontxesi</i>	Ugarte'ko neskamea	<i>Ariztegieta »</i>
<i>Ibon</i>	Jaunsoro-etxeko jauna	<i>Beorlegi jauna</i>
<i>Ugarte-zar</i>	Garbiñe'ren aitona	<i>Etxeberia »</i>
<i>Larain</i>	Lide'ren aita	<i>Egilegor »</i>
<i>Egurtza</i>	Berogei bat urteko jauna	<i>Lasa »</i>
<i>Txomin</i>	Gizon nekazaria	<i>Arozamena »</i>
<i>Gaspar</i>	Larain'go moroya	<i>Arostegi »</i>
<i>Zaindaria</i>	Larain'go gudari-buru	<i>Toregarai »</i>

Andere-laguna, bi aureko edo testigu, moroi mutiko bat eta gudariak.

LENENGO EGINTZA.

XIII'garen eunkialdian gertatua bezela antzeztuko du.

Antzerkian agertuko da, Larain-jauregiko gizategia. Eskuitara ate ta leyo bat. Atea Larain'go jaunaren lo-gelakoa. Ezkeretara bi ate. Lenengo atea etxebarenerako, ta bigarena izango da ezagutzen ez dan ate txiki bat. Atzean sarera apain zabal bat. Eskuitan alki aundi eder bat, aldamenean beste txiki bat duela. Ezkeraldean mai bat zintzari batekin. Nun nai exeri-alkik ta beste mai txiki bat idaztiak gañean dituela. Gizategi au oso apain egongo da ta etxe-tresnak bezela janzkerak ere aro artako antzekoak izango dira.

Esker-eskuyak egintzalienak.

LENENGO ATALA

LARAIN jauna, ta LIDE

(Larain jauna alki ederean exerita dago ta aldameneko txikian Lide "Testamentu zareko" idaztian Dabid'en Edestiaren bukaera, bere aitari irakurtzen ari zayo. Biak oso apañak, bañan beltzez jantziak daude. Lide'k idaztia itxi ta mai-gañera darama, bere aitak itz egiten duen bitartean.)

Larain Alditik aldira ederago deritzat askotan irakuri ta entzun dedan Dabid erege ospatsu ta deunaren edesti orixe: gaur bañon biar ederago. ¿Nor ez da adorez betetzen, ikusten duenean artzai argal ura, bere aitak eta anayak ezertakotzaz etzeukaten mutiko ura, pixkaka-pixkaka, igotzen dala Israel'ko eregearen jarlekuan eseritzera.

Asiera, batez ere, edera da. Goliat pilisteotar gizon indartsu arek, israeldarak ikaratuta dakarzuki ezertarako gauza ez dirala...

¿Nola ote zeuden gudari israeldaren agintariak! An ba-negoke bezela nabaitzen det beren estutasuna.

Zuk ezdakizu, Lide, zer naigabea dan gudari-buru batentzako, bere mendekoak argalduak eta ikaratuak ikustea.

Lide ¿Beñere arkitu al zera orela, aita?

Larain Bai, bein. Orengatik dakit zer dan atsekabe ori. Inguruko jaun batzuek, ni artean gaztea nintzala, alkartu giñan; eta geren mendeko batzuek artuta, joan giñan Naparu'ko eregearen ikuriñaren mendean guda egitera.

Eraman ginduzten ego alderontz, Aprika'ko gizatarak zeuden aldera ¿Beñere etzait aztuko ango beroa! Gu, euzkeldunak, motelduak geunden eguzki ikaragariaren azpian; eta aprikatarak beriz, gure arerioak, baziruditen bero geyago izanaz biziago arkitzen zituztela beren buruak! Eruz ziran gañera, ta gu gutxi.

Ontan iritxi zan ba, alkar jotzeko garaya. ¿Alperik! Gureak geldirik zeuden. ¿Aurera mutilak! esaten genioten. ¿Bai zera! Lotsaturik geronok jari giñan aure-aurean, eta orduantxe batzuek jaraitu ziguten. Geyenak ezin zuten ordea. Beroak eta egariak gaxotuak bai-zeuden.

Ala ere, Jaunaren laguntzaz ez genduen atzera egin, aurera baizik; bañan nik ezdakit zenbat guretar gelditu ziran ilda, lur kixkalgari artan.

- Lide ¡Ori negargaria da guda! ¿Zergatik ote da ludi ontan orenbesterañoko elkar ezin ikusia?
- Larain Nik bezin ondo dakizu, gizaldia txarera makurtua datorela bere zustraitik; eta gure lenengo gurasoak egindako obenaren naigabeak gerokin daramazkigula.
- Lide Bai, aita. Ori orela dala ezagutzen det; bañan, nik esan nai nukeana da, naigabe oyek, alkari lagunduaz gutxitu bearean, gerok, geren bekaizkeriz ugaritzen ditugula.
- Larain Gaztea zera oraindikan, gizonaren argaltasuna ezagutzeko. Eritarak alkarekin ongi ezin etori bagera, ¿nola nai dezu maitatzea, gugandik uruti bizi diranak?
(*Oyuak eta eskanbila entzuten dira atari aldetik, eta oyu aen tartetik itz oek:*)
- (Barenen) ¡Ixo, zorgin gaxto ori! Zuk gaxotu dezu nere aura.
- Larain Orain ere, Mañu aztiarekin dute zerbait. Askotan esaten dizut, Lide, ez detala nai emakume ori emen agertzea.
- Lide ¡Kupigaria da ba gaxoa! Gañera, auzokideak uste duten añako gaxtoa ez du izan bear. (*Lide altxatzen da ta leyotik begiratzen du.*)
- Larain Zuretzako guztiak onak dira. Oraindik ez didazu iñorengatik esan gaxtoa dala.
(Beriz ere oyuak entzuten dira esanez:)
- (Barenen) ¡Ori...! ¡Ori...!
- Lide ¡Aita! ¡Jotzera dijoaz! Emakume ori etxean sartzera noa...
- Larain Ez dezu orelakorik egingo.
- Lide ¡Aita! Nere amak ere (G. B.) kupida zion, eta berak ere sartuko zuen...
(Atadian emakume-karaxi bat entzuten da.)
- Larain Nai dezuna egizu ba...
(Lide laxterka joaten da atzeko sareratik.)

BIGAREN ATALA

LARAIN bakarik, gero LIDE, MAÑU ta GASPAR.

- Larain ¿Nork esaten dio ezetz? Nik beintzat ezin det. Emaztea il eta orixen besterik etzait gelditu. ¡Zer egin bear det nik, bere zoriona besterik! ¡Eta

ain ona da ta! Etzayo gogoratzen iñork ere gaiztakeririkan egin lezakeanik. ¿Nola ba? Guztiok bera bezelakoak ba-giña, ludi au zeru eder bat izango litzake. (*Altxatzen da, ta leytik begiratzen du*) ¡Ixildu ditu! Zerbait esango zien, egunero baño geyago eskuba zabalduaz, ta or dijoaz txintik atera gabe.

¿Mañu aztiaz zer egin ote du? (*Uratz otsa maladian gora norbaitzuk baletorzkie bezela entzuten da*) ¡Ez al du gora ekariko! Diranak dirala, gora datoz ba... (*atzeko sarerara joanaz dio:*) Nik esan detana: gora dakar iñork begiz ikusi ezin duen atso ori... (*Eritan bezela*).

(*Au esanez sartzen dira gelan, Lide, besotik Mañu daramala, ta atzeraxeagotik Mañu aztiaren makilarekin Gaspar, Larain'go moroya.- Lide'k exeri erazitzen du aztia alki batean, eta Larain'ek bitartean dio:*)
¿Zertarako dakarzu oneraño?

Lide ¡Azketzi, aita! Jo egin dute, ta berizere arapatuko ba'lute, beste orenbeste egingo lioteke onenean, Orengatik etxean eduki nai det, besteak joan bitartean.

Larain ¿Eta zergatik ez dezu eskaratzean utzi?

Lide Moroyak ere ezin ikusi dute.

Larain Zerbaitegatik izango da. (*Mañu'ri begiratuaz.*) ¿Ez al da orela, Mañu?

Mañu Etzazula uste, jauna, detan almena gaitz egiten ibiltzen detala. Nai ba-nu egingo nuke, ta orengatik inguru oetan gertatzen diran naigabien erua, neri ezartzen dirate. Eta ez da orela. ¡Sinistu ezazu, jauna! Detan almen ori jartzen det nere senidien zoriona egiteko. (*Lide'k Gaspar'i makila eskatzen dio, ta onek makila emanaz dasa:*)

Gaspar ¿Zerbait agintzen al dezute, jaunak?

Lide Eguardian gelditu dan zerbait jaki berotu ezazu, ta ekari zayozu oni.

Gaspar Berialaxen, andere. (*Buruba pixka bat makurtzen du ta joaten da.*)

Larain Ni ere lo-gelara noa, loxusta bat egitera. Ez gero sinistu, Lide, aurean daukazun oren esanik, alde guztietatik gezura dariola dago ta...

Mañu Gaxtoa banaiz ere, ez det aingerutxo oni gezurik esateko ausardirik.

Larain (*Joanaz.*) Ez dakit ba... Ez nuke beatza sutan jariko, zure itzaren alde. (*Joaten da.*)

IRUGAREN ATALA.

MAÑU ta LIDE, gero GASPAR.

- Mañu Zure aitak ez dit ezer ere siñistu nai. ¿Zergatik ote da?
- Lide Aztiaren izengoiti txara daramazu, zuk diozuna siñisteko. ¿Besteak bezelako biziera zergatik ez daramazu?
- Mañu ¡Ai, nere andere polita! On asko egiten det nik edonun. Zuk ez dakizu, zu bezelako zenbat neskatz, beren zalantzetatik atera ditudan. Zuk ere bat-edo-bat izango dezu, ¿Nai al dezu asmatzea? Ekatzu zure esku zuri eder ori, ta bereala etorkizuna asmatuko dizut.
- Lide ¡Ez, Mañu! Etorkizuna, Jaungoikoak bakarrik daki, ta bere eskuetan dauka. ¿Ez altzera beratzaz oroitzen?
(*Gaspar sartzen da atzeko sareratik, esku batean platera zerbait jakirekin ta bestean edanontzi ta bonbil bat dakarzukiela. Itzik esan gabe mai gañean jartzen ditu. Gero Lide'n aurean burua makurtuaz dasa:*)
- Gaspar ¿Zer geyago agintzen dezu?
- Lide Ezer ere ez. Joan zintezke. (*Gaspar joaten da atzetik*) Jan ezazu bereala, bestela oztu egingo da-ta.
- Mañu (*Jaten asiaz*) Zure osasunerako. ¡Au da gauz edera! Ugaritu bitez zure ondasunak, zure ta nere zorionean.
(*Lide'k parez edari-ontzira ardoa botatzen dio esanaz:*)
- Lide Edan ezazu, Mañu... Alde, alde, poztutzen zera jo zaituztelako... ¿ezta orela?
- Mañu Bai orixen beintzat; ura joan zan, eta... bestela ez nuen orelakorik arapatuko...
- Lide Ni ere poztutzen naiz ba, min geyago ez dezunean...
- Mañu Zure ama bezelakoxen erukitsua zera, ta nik beti gogoan idukiko zaituztet. Eta orain oroitzen naiz lenago asi degun itzaldiaz... Jaungoikoari ere ez naiz, zuk uste dezun eskergabekoa... gaur meza nagusian antxe nintzan. Egia esateko, meza entzuteagatik ere bai, bañan... zu ta zure aita, jarleku antzeko artan ikusteagatik juan naiz gaur elizara.
- Lide ¿Bai?... Gaizki...
- Mañu ¡Zein edera zeunden! Batek baño geyagok nik egin detana, egin du... Zuri begira egon, meza entzun bearean.
- Lide Gaizki egiña. Elizara, Jaungoikoa aintzatzera ta goratzera joaten da, gañerakoak karikarako utziaz.
(*Mañu'k noizean bein zerbait jan edo edan egiten du.*)
- Mañu Guztiok ez gera ordea zu bezin onak.
- Lide Ni ere ez naiz ona...

Mañu Bai, bai...

Lide Alegiñak egiten ditut izateko; ta ori edozeñek lezake...

Mañu Baña...

Lide Zutzaz kupitzen naiz, Mañu, ikusten detalako emen gorotatua bizi zerala, ta betiko zoriona galtzeko bidean zabiltzala.

Mañu Irudipenak...

Lide Ez, Mañu, ez; izakera aldatu bear dezu. Gaur bertan biziera beriari asiera eman bear diozu, nerekin, baratzan degun elizatzora joanaz, eta nerekin an otoitz egiñaz. Ikusiko dezu zenbatez obetoago ta atsegiñago biziko zeran... Zerura irixteko itxaropenak, asko laguntzen ditu garaztasunak. ¿Nai al dezu?

Mañu Zuk agintzen didazuna ezin ukatuko dizut. Zure amari ta zuri zor aundiak dizkitzutet eta...

LUGAREN ATALA

Lengoak eta LARAIN jauna.

Larain (*Sartubaz*) Nik ez dakit zer detan; ezin lorik egin det (*Mañu'ri asare begiratuaz*) ¿Oraindik emen al dago atso au? Beriz ere egongo zera bai zu, aurean orelakoak jariezkero. (*Exeritzen da.*)

Lide Oraintxen ginjoazen biok elizatzora, otoitz egitera.

Larain ¡A zer otoitza izango dan zorgin orek egingo duena!

Mañu Zure alabaren aldamenean, jauna, ta berak esaten dituenaz nere biotzak ere, naiz ez zuk sinistu, goruntz begiratzen du.

Larain Bai, bai; goruntz eginda nere alabari zerbait ateratzen diozulako. Beruntz egiteagatik, beste norbaitek geyago ematen ba-dizu, laster da beruntz, zure biotzaren izeneko ori.

Mañu (*Altxeaz*) Ezagutzen det aurean ez nazula ikusi ere nai.
(*Lide ere altxatzen da.*)

Larain Exeri zaite Mañu. Oso alderdi txarekoa nago, ta pixka bat alaitzeko ipui bat esan bear didazu. Gai ontan gain gañekoa zera diotenez ta...

Mañu (*Exeriaz*) Zorionekua izango naiz, Larain jaunaren ingurutik laño beltzak kentzen ba-ditut.

Larain Ia bada.

Mañu Ipuya dirudina gertatu da gaur erian. ¿Ez al dakizute?

Larain Ez gero gezurik esan.

Mañu Jauna...

Larain ¿Zer da bada, zer da, ipuya dirudien gertaera ori?

Mañu Inguru guztiak ez du bestetzaz itz-egiten.

Lide Entzun zagon bada. (*Lide exeritxen da.*)

Mañu Amaika bider joan zerate, zeren emazte ta amarekin gaur meza ondorean, agirian egiten dan jaya ikustera. Aurten, ¡jakiña zegoan! zer egingo zenduten. Andre deun, ongile ta zuzen ark utzi duen utsunea, ezin aztu zenezateke.

Larain ¿Eta bai al du zer ikusirik esaten ari zeranak, eta esan bear dezun gertaerak? Zoaz aurera, gure biotzak dauden baño geyago ilundu gabe.

Mañu Esan nai nuen alegia, orengatik etzendutela gaurko jaya ikusiko, ta zer gertatu dan jakingo.

Larain ¿Esango al dezu, ala ez?

Mañu Ez asaretu, jauna... bereala esango det eta...

Lide Asi zaite, Mañu...

Mañu Ora bada. Ba-dakizute zezen txiki batzuek azkatuta ibiltzen dituztela, gaurko egunaz agirian, gaztedia ayekin jolastu dein. Gaur ba, zezen ayetako batek ataka ausi du, ta karikan gora laxterka asi da, bidean arkitzen zituenak purukatzeko zorian...

Lide ¡Jaungoiko maitea! ¿Iñor arapatu al du?

Mañu Ezta iñortxo ere.

Lide ¿Zer gertatu da bada?

Mañu ¿Zer gertatu dan?... Asnasik gabe gelditu gera guztiok, ikusi degunean jaun gazte bat, etxe batetik ateratzen, eta zuzen-zuzen zezenaren aurera joaten. Batetako gauza izan da: eldu dio zezenari adaretatik, eta bere aurean apal-apal jari du. Bereala joan zaizka beste gazte batzuek laguntzera, ta orela ez da gaur izan negargarizko egun bat.

Lide ¡Jaunari eskerak!

[illegible]

BOSGAREN ATALA

LARAIN bakarik, gero GASPAR.

Larain Etoriko da bai, bere mingain legunaz, bakoitzari bere aldera itz egiñaz. Nere alaba Lide oso txoratu da... bide onean jari bear duela ori... ori... (*Atadian adar-ots bat entzuten da.*) ¿Nor ote dator nere etxera? (*Leyotik begiratuaz*) Bost zaldizko dirala besterik ez det ikusten. (*Mai gañean dagon zintzaria jotzen du, ta beriz ere leyotik begiratuaz dio:*) ¿Zertara ote datoz? Ez aldidate beri txaren bat ekariko. Bat zartzen dijoan bezela guztia beltzagoa ikusten du, ta utsagatik ikaratzen da.

(*Gaspar atzetik sartuaz:*)

Gaspar ¿Zer agintzen dezu, jauna?

Larain Zaindariari esan akyok ate nagusia zabalduazi dezala, ta maladian bi aldietan ereskanan, etxean diran moroi guztiak jari ditzala.

Gaspar Bai, jauna. (*Joaten da eramanaz aztiarentzako ekaritako platera ta abar*).

(*Larain'ek beriz ere leyotik begiratzen du, ta dio:*)

Larain Oraintxen bertaratu dira ba, ta alaere ezin ezagutu ditut, altxa duten autsagatik. (*Zaldiaren uratz-otsa entzuten da, ta beriz adarena ere bai.*)
¡Ara! Egurtza da. Aspaldian ez genduen alkar ikusi... ¿Noiz etori ote da gudatik?

Ori ere urteak aurera joan zaizka. Ta nere aldian gaztea da... ¡Zenbateraño zartu ote naiz ni! ¡Au poza! Egurtza lagun ona izan det beti.

Emaztea joan zaidan ontan beriz, lagunaz len baño ere geyago oroitzen naiz.

SEIGAREN ATALA

LARAIN, EGURTZA ta GASPAR

(*Atzetik zaindaria sartzen da ta ezpataz Larain jauna agurtu ta gero joaten da. Bereala, sartzen da beriz, atzetik gudariak beren aztamakilakin (lanzas) dakarzkila; erenkadan jarita zenbatu egiten dituen bezin laxter, sartzen da Egurtza, Gaspar'ek bidea erakutsiaz, Gaspar atietan gelditzen da, ta Larain'ek Egurtza lastanduaz esaten du:*)

Larain Au zoriona neretzat, etxean Egurtza jauna ikusiaz.

Egurtza Nerea aundiagoa da oraindik, Larain'go jaun altsuaren etxean onelako arera arkituaz.

Larain Bakoitzari dagokion arera egiten zayo etxe ontan.

Egurtza Neri opa didazuna, dagokitan bañon ere garayagoa dala iduritzen zait.

Larain Etzazula uste, Egurtza jauna.. (*Gaspar-i*) Oa Gaspar, ta urutiratu gabe or urean gelditu adi.
(*Gaspar joaten da*) (*Gero Larain'ek Egurtza'ri bere alxia erakutsiaz dio:*)
Exeri zaite, Egurtza.

Egurtza Larain'go Jaunaren alkian ez naiz exeriko.

Larain Larain'go jauna zu zera, etxe ontan sartu zeranezkero.

Egurtza	(<i>Exeriyaz</i>) Eskarikasko, Larain, nere etxean zuri beste orenbeste egiteko zaletuta nago. (<i>Larain beste alki batean exeri da.</i>)
Larain	Eskarikasko, Egurtza.
Egurtza	Lendabizi azaldu bear dizut zer zoriontsu ezagutuko nitzaken, emaztearen eriotzak Larain'go jaunaren biotzean iriki duen zauria, zerbait ixten asmatuko ba'nu.
Larain	Eskergaria da zure nai, ezin ta obe ori; bañan nere zauri au, beñere itxiko ez dana da.
Egurtza	Kupigaria da bai. ¿Eta alaba?...
Larain	¡Gaxoa! Amik gabe gelditu da! Ez dakit nere aurean itxurak egiten dituen... nik aren aurean bezela; bañan, ni baño etsiagoa agertzen da. Nik beriz garaya aurera dijoan bezela, utsune aundiagoa arkitzen det nere biotzean.
Egurtza	¡Nere lagun gaxoa! Ezagun dezu naigabea uretik ikusi dezula.
Larain	Ez nuen uste nayezak orenbeste menderatuko ninduanik.
Egurtza	Oraindaño gizon biozdunaren agiriak eman dituzu beti; ta orain ere, jakingo dezu, ez daukat zalantzik, zure naigabea menderatzen.
Larain	¡Jaunari orela nai dakiola! -¿Ta zer diozu zure ibilketaz? ¿Nola joan zaizu ego aldean?
Egurtza	Ez dakart andik ezer beririk. Batzuetan kristabak pitin batez aurera egiten dute, Aprikatarak ego aldera bultzeaz; bestietan beriz, oek aureratzen dira, kristabak atzeratuaz...
Larain	Utsa...
Egurtza	Utsaren ordekoa. Ni an egon naizen sei ilabetietan, ez degu ezer ere egin; eta aspertua etori naiz nere etxera.
Larain	Ederki egiña.
Egurtza	Iritxi ordurako esan didate, izan dezun galera negargaria, ta izan al dedan laisterena etori natzazu: lenbizi zure samintasunean laguntzera, ta... bigaren beriz... zuri... eskari bat egitera.
Larain	Nai dezuna eskatu zaidazu; nik egin nezakeana bada, pozik egingo dizut.
Egurtza	Zuk dezun gauzik ederena eskatzera natorkizu.
Larain	Ez det somatzen...

- Egurtza Esan dizut, an eta emen ibiltzen aspertu naizela; ta nere etxean, eroso, ta oraindano, zalapartik gabe bizitzeaz, zaletu naizela. Ortarako emazte on bat bear det. Zuk orela nai ba-dezu, zure alabaren zoriona egitea izango da, emendik aurera, nere gogo bakara.
- Larain ¡Egurtza! Nere biotza alaitu ta samintzen dezu, bat-batean.
- Egurtza ¿Zergatik?
- Larain ¿Zer pozgarigo aita batentzat, bere alaba zu bezelako gizon bati emaztetzat ematea baño? Eta une berean, eduki ezazu gogoan aita orek ez duela beste pozik, bere alaba bakar ori begiratu, ta bere itzak entzutea baizik.
(*Larain'ek arpegia eskuaz estaltzen du.*)
- Egurtza Alaba ta lagunaren orde, alaba ta semea izango dituzu.
(*Larain pitin batean erantzun gabe egoten da; ta gero bat batean burua altxeaz dasa:*)
- Larain Inork ez du berekoi izan bear, eta gutxigo aita batek bere alabaren zoriona galtzeko. Nere bizi guztian eman dizudan nere adiskidetasunen ageririk aundiena, Egurtza, gaur ematen dizut.
Zorionekoak izan zaitezte biok. (*Egurtza'k Larain'i eskuan muñ egiten dio.*)
- Egurtza Eskarikasko, Larain'go jaun altsua. Zure itzak zeru oso-oso jartzen dute nere aurean. Ba-da urte bete zure alabaren iduria begietan nebilkiela. Eta orain nere amets guziak osatzen dira. (*Alkar lastanduaz egongo dira pixka batean; gero Larain'ek len esandako zintzaria joko du. ¿Zertara zoaz?*)
- Larain Lide ekari erazitza.
- Egurtza Onlako zorionik, ez det nere bizi guztian ezagutu.

ZAZPIGAREN ATALA

Lengoak eta GASPAR

(*Gaspar atzetik agertzen da.*)

- Gaspar ¿Zer agintzen dezute, jaunak?
- Larain Esan akiok Lide'ri, Egurtza jauna ta ni, aren zai gaudela.
- Gaspar Esango diot, jauna.
- Larain Gañera agindu ezak, guretzat aratsaldekoa jan-gelan jari dezatela.

Gaspar	Bai, jauna.
Larain	Zaindariari esan akiok itxi erazi ditzala ateak eta nere moroyak bakoitza bere aldera dijoazela. Agindu zak gañera, jaun onen moroyai aratsaldekoa eman dezayetela; eta ez ditezela aztu, zaldiak ukulura eraman eta naiko garagar emateaz.
Gaspar	Ongi da, jauna.
Egurtza	(<i>Larain'i</i>) Nik ere, zure baimenaz, ba-det zerbait, zure moroyari esan beara.
Larain	(<i>Gaspar'i</i>) Entzun eta egin itzak zintzo, jaun onen aginduak.
Egurtza	(<i>Larain'i</i>) Eskarikasko, Larain. (<i>Gero Gaspar'i</i>) Jon, nere jaraile gazteari esan akiok, nere esku-kutxa ekari dezala onera. (<i>Gaspar joaten da, zaindariari andik ateratzeko kiñu egiñaz. Onek ezpataz jaunak agurtuaz Gaspar'en agindua egiten du ta bere gudariakin joaten da</i>).

ZORTZIGAREN ATALA

LARAIN eta EGURTZA.

Egurtza	Len ere esan dizut eta, zure alabaren zoriona izango da neretzat asmo bizi ta sendoa.
Larain	Bai, Egurtza, bai, nere alaba zorioneko egingo dezula ba-dakit. Ni bakarrik geldituko naiz atsekabez betea, nere alaba maitea gabe. (<i>Jon agertzen da atzeko atean eskuetan kutxatxo eder bat duela ta burua makurtu ondoren bertan gelditzen da</i>)
Egurtza	Etzera ondo ari. Len alaba bakara zenduen; orain alaba bera ta suya izango dituzu: baten orde, bi. (<i>Jon'i</i>) Utzi zak mai oren gañean. (<i>Jon'ek agindu bezela uzten du kutxa mai-gañean, ta atean beriz burua makurtu ondoren joaten da</i>).
Larain	Nere biotzaren zati bat nere emazte gaxoak eraman dit, beste zatia alabak eramango du; ta ala ere zoriontsu arkitzen naiz, zu bezelako senara eratu zaigulako.
Egurtza	Nik itz ematen dizut etzaizula damutuko.

BEDERATZIGAREN ATALA

Lengaok LIDE ta GASPAR

(Gaspar ezkerereko lenengo atean azalduaz).

Gaspar	Lide emen dator. (<i>Lide agertzen da esandako atetik ta Gaspar joaten da</i>).
Egurtza	Zorionekoak dira nere begiak, Larain'go Lide'ren edertasuna ikusi dutelako. (<i>Egurtza'k Lide'ri eskuan muñ egiten dio</i> .)
Lide	Eta Egurtza jaunak goratu ditu Larain'go orma zaretaraño guztiak, bera etoriaz.
Egurtza	Ni izan naiz goratua etxe ontan sartu naizenezkero.
Larain	Guztiori atsegin neurigabea eman diguzu, Egurtza.
Egurtza	Eskarikasko. (<i>Mai-gañetik kutxa artuaz eta Lide'ri eskañiaz</i>). Orain, Lide, artu ezazu, nik egin nai dizudan oroipena. (<i>Lide'k aitari begiratzen dio, ta onek dio</i> :)
Larain	Artu zenezake, alaba. Emaidza eskeintzen dizun gizon orek, emaztetzaz autu zaitu, ta nik ere baimena eman diot. (<i>Lide'k kutxa artu gabe, aitari joaten zayo, erdi negarez esanaz</i> :
Lide	¡Aita! ¡Etzaitut oraindik utzi nai! Gaztea naiz.
Larain	Zuretzako bezin garatza da neretzako, zu etxe ontatik ateratzea. Ba-dakizu ordea, gauzai etzayotela biotzaz begiratu bear, buruz baizik. Nere naita-nayezko egin bearra da, zure etorkizunari begiratzea; ta Jaungoikoak beretzat autu ez ba-zaitu beñepein, Egurtza bezin senar onik, arkitzen zail izango da.

AMARGAREN ATALA

Lengoak eta GARBIÑE

(Garbiñe barendik).

Garbiñe	¡Lide! ¡Lide! ¿Nun zera? (<i>Bereala Garbiñe agertzen da ezagutzen ez dan ezkerereko atetik, ta ikaratua bezela gelditzen da esanaz</i> :) Azketsi, jaunak... Ez nuen uste, Lide besterikan emen egongo zanik.
Larain	¿Eta nola etori zera oneraño, neretakoak ikusi gabe?

Garbiñe Jauna: elizatzora joan naiz, an Lide arkituko nuelakoan bañan etzegon. Igo naiz bere gelara ta... alperik. Iñon arkitu ez detanean etori naiz onera... Ezagutzen det gaizki egin detala... Azketsi.

Larain Erua ez da zurea, etxeari obeto begiratu bear liotekenena da.

Garbiñe (*Sartu dan atetik ateratzera bezela egiten du*). Azketsi... banoa...

Lide (*Lide Garbiñe'rengana joanaz*): ¡Etzaitezela joan, Garbiñe! ¡Aita! Biok alkarekin pozik egoten gera-ta...

Larain (*Asaretuta*) Lide: uste nuen andre izatera iritxi ziñala, ta ikusten detanez, ume bat besterik etzera...

Egurtza Utzi zayozu bere lagunarekin egoten. Ez da aritzekoa gertatu dana. Eduki ezazu gogoan, beñere bururatu etzayona esan zayo-ta.

Larain Ala bearko. Geldi zaite, Garbiñe. (*Egurtza'ri*) Orain, aratsaldekoa artzeko garaya iritxi bitartean, erakutsiko dizut, Egurtza, orela nai ba-dezu, Larain'go etxeko izkilu-gela.

Egurtza Pozik, Larain. (*Lide'ri, oso eztitsu*) Agur... Lide... (*Garbiñe'ri*) Agur. (*Lide ta Garbiñe aro artako erara agurtzen dute*)

Lide ta Garbiñe Agur. (*Larain eta Egurtza ate aldera dijoaz, eta Larain'ek dio*)

Larain Egurtza, gutxienez iru eunki dituen ezpata bat ba-det, ta bere edestia niganaño... (*Larain eta Egurtza joaten dira*).

AMAIKAGAREN ATALA

LIDE ta GARBIÑE.

Lide (*Negarez*) Neri gertatzen zaidana, Garbiñe, izugaria da.

Garbiñe Ez negarik egin, Lide. Zuk uste dezun añekoa ez da onenean izango.

Lide ¿Ez al dezu ikusi nere aita asare joan dala?

Garbiñe Etzazula uste...

Lide ¡Eta asiera besterik ez da oraindik!

Garbiñe Lide, ez estutu...

Lide Amatzoko maitea, zu bizi ba'zinake, ez litzake au gertatuko.
 ¡Aren, ama! Adierazi zayozu, lurrean utzi zenduen alabari estutasun ontan
 zer egin bear duen.

Garbiñe Ba-dakizu zuri laguntzeko, gertu nagoala beti.

Lide Ba-dakit, Garbiñe. Gaur, Jaungoikoak, bere aingeru bat bezela bialdu zaitu
 etxe ontara. Zu gela ontan sartu zeranean, zer esan ez nekiela negoen.

Garbiñe ¿Zer bada?

Lide ¿Ikusi al dezu nere aitarekin joan dan jaun ori? Egurtza da...

Garbiñe Abizen oren aditzera ba-det.

Lide Egurtza orek ba, emaztetzat autu nau..

Garbiñe Ara...

Lide Nere aitari eskaera egin dio, ta nere aitak bayetza eman du. (*Beriz ere
 negar egiñaz*)

Garbiñe ¿Ta orengatik negar egiten dezu?

Lide Bai, ez det nik ori nai ta...

Garbiñe ¿E?

Lide Beste bat nai detalako.

Garbiñe ¡A!

Lide Nere aitak beriz, bein bere itza emanezkero beteko du...

Garbiñe Egipen ontan, zure itza, zure aitarena bezin indarekoa da; ta berak ere
 orela ezagutuko du... maite dezun gizona, zu añaekoa baldin ba-da.

Lide Begira, Garbiñe: alkari oraindik ez diogu aitortu, itzik ere ez degu esan;
 bañan uste det zinez maite naula; ta nik beriz... nola ukatu... ezin artzaz
 aztu naiz...

Garbiñe Mingañak baño len, begiak aitortzen dituzte gauz oyek.

Lide Nere aitak, buru arintzat dauka, baña nik, ondo ezagutzen detala uste det,
 eta ez da orlakua, Ibon...

Garbiñe ¿Ibon?

Lide Bai, Ibon, nere lengusua.

Garbiñe (*Asnaz lari bat egiten du*) ¡Ibon! ¿Maite zaitulazko kezkek gabe zaude?

Lide Ustez beintzat bai. Bañan... ¿zergatik galdera ori? ¿nik ez dakitan zerbait al dakizu?

Garbiñe (*Eskua bekokira eramanaz, ta beretzat, esaten du*) Onen itzak biotza zauritzen dirate.

Lide ¿Zer dezu, Garbiñe? ¿Gaxo al zaude? Arpegi txara jari zaizu.

Garbiñe Ez ikaratu, Lide. Ez da ezer. (¿Au naigabea!) Eguratzean beti oitua bai negoan, etxe barunbeak gaitz egingo ziran. Leyoa iriki bearko dezu. (*Lide altxatzen da, ta leyoa irikitzen du.*)

Garbiñe (*Garbiñe'k beretzat*) Anai bati bezela nai niola uste nuen; biotzaren karaxietan ezagutzen det, barenagoko maitasuna dala.

Lide ¿Zergatik ez dezu lenago esan?

Garbiñe (*Par-iri bat egiñaz*) ¿Ikusten al dezu? Igaro zait. Orain, ongi nago.

Lide ¿Zer nai dezu ekartzea?

Garbiñe Ez det ezer bear. Zutaz itz egin dezagun.

Lide Ori, ori... ¿Zergatik egin didazu lengo galdera ura?

Garbiñe Ezergatik ez.

Lide ¿Gaizki al derizkiozu, nik Ibon maitatzea?

Garbiñe Ez, Lide. Ba-dakizu, nere amak nerekin batean azi zuela, ta señaideak bezela gerala...

Lide Ala da.

Garbiñe Maitatu ezazu, ona da-ta...

Lide Dan bezela. Egurtza jaun orek bere burua aunditzat eukiaren, ez nuke Ibon'en ordeztariko.

Garbiñe Ongi diozu. Bakarrik, lenbailen bere itza bear dezu, aitari garbi esateko. (*Maladian gora uratz-otsak entzuten dira*).

Lide Norbait dator, lo-gelara noa; negar egin detala ezagutu ez dezaten... Gelditu zaite zu emen. (*Ate txikitik joaten da lasterka.*)

AMABIGAREN ATALA

GARBIÑE bakarik, gero IBON ta GASPAR.

- Garbiñe ¡Ibon! Ez daki Lide'k itz orek nere biotza purukatu duela. Barenen gordea zegoana ezpañetara azaldu zait. Ez nekiena, uste ez nuena, ba-dakit: Ibon maite det. Bai, maite det. Ez arebak anaya bezela; emakume batek gizasemea maita lezakean naitasun sendoenaz. Ez nekiena jakin det, eta ori, nere naitasuna besteren eskuetara joan danean. ¡Zertarako jakin bear nuen bere garaztasunez itotzeko! ¡Izate negargaria!
Bañan... dionez orde, Ibon'ek ez dio oraindik orrelako itzik esan... ¿Nork daki? Onenean, Lide'k bera dala ustearen, ni naiz autua... ¡Nork daki!... Ez, ez, Ugarte'ko alabak ez ditu begiak ain gora jaso bear. Iluntasun negargarian zabaltzen dira nere begiak nere naitasun sutsuaren obia nabaitzeko. ¡Au atsekabe samiña!.
- (*Gaspar'ek barendik esaten du*). Bai, etxean dira.
- Ibon (*Ibon ateratzen da atzeko sareratik*) ¡Ara! ¿Zu bakarik al zaude emen, Garbiñe?
- Garbiñe Orain arte bakarik nengoen; orain zurekin nago.
- Ibon Egia; ¿ta Lide?
- Garbiñe Lide... bai, Lide... laxter etoriko da.
- Ibon Ondo da. ¿Aitona nola dago?
- Garbiñe Ongi...
- Ibon Ilun zaudela derizkiot. ¿Zerbait gertatzen al da?
- Garbiñe Bai, ta ez. (Jauna, zure laguntza eskatzen dizut.) Atoz, Ibon; exeri zaite nere aldamenean, areba batek egiten duen bezela itz egin bear dizut.
- Ibon (*Exeriaz*) Beti arebatzat euki zaitut, eta orela maitatu ere.
- Garbiñe ¿Areba... bezela...?
- Ibon Bai; bene benetan areba bezela, areba on, atsegin, maitetsu baten antzera.
- Garbiñe (¡Nere zorigaiztoan!) -Ibon: ¿Maite al dezu Lide?
- Ibon Bai, Garbiñe. ¿Ezagutu al dezu?
- Garbiñe Zerbait... (¡Zorigaiztoan!)
- Ibon Eta...
- Garbiñe Ezer ez... (Ez dakit zer esan). Maite ba'dezu, maitasun ori lenbailen agertu bear diozu ba.

Ibon ¿Ez ote du bada, zuk bezela ezagutu?.

Garbiñe Ez dakit. Dakitana da, bere aitak beste bati itz eman diola.

Ibon (*Bat-batetan altxeaz*) ¿Eta berak zer egin du?

Garbiñe Ezer ere ez oraindik.

Ibon Bereala berari itz egin bear diot ¿Nun da?

Garbiñe (*Lide joan dan atea iriki, ta deitzen du:*) ¡Lide! (*Gero Ibon'i*) Zer uste zenduen: ¿zuk bakarrik begiratzekoa zala Lide?

Ibon Ala da. Neri ori bururatu bear zitzaidan. Eskerak zuri, nere arebatxoa.

Garbiñe Arebatxoa... bai...

AMAIRUGAREN ATALA

Lengoak eta LIDE.

Lide (*Lide ezkerreko atetik agertzen da*) ¿Zu al ziñan, Ibon?

Ibon Bai, ni naiz, Lide. Zu ikusi gabe, egun bat ere ezin egon naiz.
(*Biak alkaren aldamenean exeritzen dira. Garbiñe atzeraxeago zutik gelditzen da.*)

Lide Ez dakit, Ibon, ori egiz esaten didazun.

Ibon Ba-dakizu, bai. Aspaldi ontan egunero natorkizu, eta geyago ta geyago zu ezagutzen zaitudan bezela, zalago arkitzen det zu ikusi gabe egotea.

Lide Bai, esan...

Ibon Ogei urte dituzu, Lide. Nik ogeita bost. Alkarekin bizitzen jartzen ez bagera laxter, bakoitzak geren aldetik aldendu bearko gera.

Lide Ori ez...

Ibon Au gertatu litekela, bururatu utsaz, iltzeko laria nabaitzen ditut. Etzera ain gogora izango, Lide, ta nere emazte izan naiko dezula esaidazu bayetz.

Lide Ibon... Nere aitak beste bati itza eman dio.

Ibon ¿Eta zer? Zuk ez dezu eman. Eta zure itza, zure bayetza, neretzako dala badakit. ¿Ez al da orela, Lide? (*Pixka batean ixiltzen da*) ¿Ez al didazu erantzuten? Ixiltzen zeranean, bayetza ematen didazula ezagun da.

Lide Nere aitak bere itza ordaindu naiko du.

Ibon Zuk lenago neri eman didazu. ¿Ez al da orela?

Lide Bañan...

Ibon Erantzun zaidazu, Lide. ¿Ez al da orela?

Lide Bai.

Ibon ¡Bai! Itz oren bidez kendu dizkidatzu zalantza guztiak. Zure bayetza entzun ondorean ez dit inorgatikan ajolik. Ori zan nik nai nuena. Orek erakusten dit nere aspaldiko amets gozoa egia dala.

Lide ¿Beraz atsegindu al zera orain?

Ibon ¡Pozak txoratu bear nau! ¡Bai asko maite zaitudala, Lide!

Lide ¿Egietan?

Ibon Nere mingañoak ezin lezake esan bear bezela.
(*Izketari ixilik jaraitzen diote biak.*)

Garbiñe (*Garbiñe'k biari begiratuaz*) ¡Bai zorionekoak dirala! Baña ni... ¡Garbiñe gaxoa! ¡Negar egitea besterik etzaizu gelditzen!
¿Zergatik, nere biotz gaxoa, ain gora igo nai izan dezu? Ora orain bea jo. Baru-barunean ezkutatuko ditut nere samintasunak, inortxok ere jakin gabe. Erukigari gelditzen ba-naiz ni, zoriona izan dezala Ibon'ek ¡Maite det eta! ¡Bai, maite det!

AMALAUGAREN ATALA

Lenguak LARAIN eta EGURTZA.

(*Larain eta Egurtza atzeko sareratik etortzen-dira. Ibon altxatzen da ta Garbiñe Lide'ren aldamenean jartzen da*).

Lide Eskarikasko, Garbiñe. ¡Bai ona zerala!
(*Ibon'ek Larain'i muñ egiten dio eskuan, esanaz*):

Ibon ¿Nola zaude osaba?
(*Larain asare xamar*)

Larain Ez zu bezin ondo ta txoro. Jakin det gaur eguerdian egin dezun erokeria.

Ibon Osaba...

Larain Orelako berotasunak gudarako gorde bear dira, gudarako. (*Egurtza erakutsiaz*) Egurtza jauna, nere aspaldiko laguna.

Ibon (*Pixka bat burua makurtzen du esanaz*) Atsegin det ezagutzeaz.

Larain (*Egurtza'ri Ibon erakutsiaz*) Ibon, Jaunsoro-etxeko jauna.

Egurtza Urte askoan. Zure aita ezagutu nuen. Gudari biozdun eta sutsua zan.

Larain Semea izango dan bañon obea. Onek beti uste du aur dala. Or eta emen jolasten ibiliaz onena egiña dago.

Egurtza Zer nai dezu ba... gaztea da oraindik. Gañera, artara jariezkero, iñor baño obea izango litzake agian.

Larain Izan liteke. (*Larain'ek guztiai esaten die ta Lide ta Garbiñe altxatzen dira*) Orain, etxekoak zeratenezkero, jan-gelara joan baño lenago, ikusi bear dezute, senar-gayak Lide'ri egin dion emaitza (*Lide'ri*) ¿Nun dezu?

Ibon (¿Senargaya?)
(*Lide negarez asten da*).

Larain ¿Orain ere negar egiten dezu? Malkoak, obenak aitortzen diranean bakarrik agertu bear dira gure begietan.

Garbiñe (*Lide'ri ixilka esaten dio:*) ¡Lide! Orain da garaya! Itz egin ezazu.
(*Lide aitarengana joanaz*).

Lide ¡Aita! Azketsi oraindano ixilik eduki ba'det. Itza beste bati emana daukat.

Egurtza ¿Nola? ¿Besti bati?
(*Larain oso asare*)

Larain ¡Alaba! ¿Zure aitari ezer esan gabe, orelako bayetza emateko ausardia izan dezu? Ez nuen uste zuk, Lide, orelakorik egingo zenduanik. Laraingo etxea ez dezu orela batere goratzen. ¿Eta nor da, bere burua agertzeaz lotsatzen dan gizon ori?

Ibon Ni naiz, osaba.

Larain ¿E?

Egurtza ¡Ibon!

Ibon Bai, ni. Jostalutzaz eta aurtzaz naukazu beti, ta orengatik ez dizut lenago nere baren-asmoa agertu. (*Ibon belaunikatzen da Larain'en aurean, eta Lide ere bai bere onduan*) Lide ukatzen ba'didazu, zure iloba obiratuko dezu.

Lide ¡Aita!

Larain *(Begiratu ere egin gabe esaten du:)* Altxa zaitezte. *(Gero Egurtza'ri)*
Etzan au nere asmoa.

Egurtza Ba-dakit zuk erurik ez dezula. Agur, Larain; beñere etxe ontan sartu ez
ba'nintzan obe nuen.
(Egurtza atzeko sarerara joaten da, ta esku-kiñu batez Jon deitzen du.
Beste esku-kiñu batez, mai-gañean dagoen kutxa eramanez erazitzen dio,
ta bereala oju aundi batez esaten du)
Egurtza'k iseka au ordainduko du... ¡Lide ez da Ibon'ena izango!
(Egurtza, aurean Jon daramala, laxterka joaten da.)

Bat-batetan zapia jaxten da.

BIGAREN EGINTZA

Antzokian, baseri baten sarera agertuko da. Eskuitara zuaitz batzuek, batek alki bat inguruan duela; atzian baratzako sarera.

LENENGO ATALA.

UGARTE-ZAR eta GARBIÑE.

(Zuaitzak inguruan daukan alkian biak exerita daude.)

- Ugarte-zar ¡Bai giro edera degula aurten arto eraiketak egiteko! Aspaldiko urtietan ez da orelako uda beririk izan. Oroitu erazitzen dizkit, ni gaztea nintzanekoak. ¡Ayek egunak!... Joan ziran, beñere geyago ez biurtzeko.
- Garbiñe Oraingoak ere joango diran bezela.
- Ugarte-zar Zuz orain daukazu lo-gelan egiten genduen iru anayak. Gure aitak egunabareko izkila, elizan jotzen zuenean, gure gelan sartzen zitzaigun «Anjelus» otoitz egiñaz, eta bereala labak moroyen batekin geren lanari asiera ematen giñion, ingurutzen gaituzten soro oetan... Amaika abesti gozo, abestu genduen.
Gure ama maiteak goiz asko gosaria, sorora bertara, eramaten zigun, eta guztiok alkarekin zuaitz baten itzalpean, gozoro gosaltzen asten giñanean, an beren kabiak zituzten txantxagoriak ere guri begira poztutzen ziran...
Etixerakoan beriz, beti bi lore-txorta eder biltzen genituen: bat, etxean daukagun Izar'ko Ama'ren aurean jartzeko, ta bestea geren lureko amarentzat izaten zan.
- Garbiñe Oroipen edera.
- Ugarte-zar ¡Aldaketa aundia egin du Ugarte'ko etxe onek geroztik! Aita ura, ama ura il ziran. Anai ayek emendik joan ziran. Nere emazte gaxoa, nere alaba bakara, zure ama...
- Garbiñe ¡Amatxo gaxoa! ¡Beratzaz zenbat oroitzen naizen! (¡Orain batez ere!).
- Ugarte-zar Zure aita zana... Guztiak, guztiak joan ziran. ¡Zu bakarrik gelditu zera, Garbiñe, nere zartzaroko urteak argitzeko! (*Garbiñ'ek sudur-zapia begietara darama*) ¡Garbiñe gaxoa! ¡Zure aitonaren kezka samiñak entzuteko jayoa! Ez dizut geyago orelako oroipen negargaririk berituko.
- Garbiñe ¡Bai, aitona! Orelakoak esaten dizkidazunean, nere gogoa, aur bat bere amaren magalean arkitzen dan bezin ongi, egoten da.
- Ugarte-zar Orengatik ez dizut nik orelakorik esan bear, eta batez ere orain, gaxo zaudela.

Garbiñe ¡Ni ez nago gaxo, aitona! Zure irudipenak baizik ez dira.

Ugarte-zar ¿Nere irudipenak?...

Garbiñe Bai, aitona, bai.

Ugarte-zar ¿Zer uste dezu? Zu bakara zaitut eta... ¿etzaitudala begiratzen?

Garbiñe Ikusten det bayetz, baña...

Ugarte-zar Zugan egiten dan aldaketik txikiena ere ez da nik ezagutu gabe igarotzen. Ba-dira egun batzuek beriz zure abestirik entzuten ez detala... ¿Zer dezu?

Garbiñe Ezer ez...

Ugarte-zar ¿Ez al diozu zure aitonari esan bear? Zure begietatik argia ikusten duen oni.

BIGAREN ATALA

Lengoak eta KONTXEXI.

(Kontxexi zuaitz-aldeetik buruan saski bat dakarela sartzen da.)

Garbiñe Ona emen Kontxexi oitu bezela laxterka, langiliai aparia emanda.

Kontxexi ¿Laxterka? Ibili bearko etxe ontako lanak egingo ba'dira. Beti laxterka bizi naiz, il ere, orela egin bearko naiz.

Ugarte-zar ¿Zertan dira arto-erale oyek?

Kontxexi Ederki orain, nik eramandako aparia garbitu dutenean.

Ugarte-zar ¿Zein sorotan ari dira?

Kontxexi Ementxen... Bertaneko ontan. Ikusi nai ba'dituzu, lagunduko dizut, utzitako gauz batzuen bila joan bear naiz-eta.

Ugarte-zar Joan-etori bat egiteko gogo ba-daukat ba.

Garbiñe Zoaz bada, aitona.

Kontxexi Zoaz, bai; oek utzi ta bereala an naiz; alkarekin etoriko gera. *(Baserian sartzen da)*

Garbiñe Bai, aitona, irurok etoriko gera.

Ugarte-zar (Jekiaz) Ez daukat bada kemen aundirik...

Garbiñe Oraindik bai, Jaungoikoari eskerak. Bildura, bildura daukazu ezuretaraño sartua...

Ugarte-zar Bildura, urteak eta... gañerakoak, ¡ba'zenekike zenbateraño zama egiten duten!

Garbiñe Oraindik gizon gordiña zaude, aitona.

Ugarte-zar ¿Gordiña?... Zuk bai uste... Ar bat daukat baren barenean.

Garbiñe ¿Ara?

Ugarte-zar Ar ori, zu zera.

Garbiñe ¿Ni?

Ugarte-zar Bai, zu... Ikusten ez detalako zure begietan lengo alaitasun pozgaria; zure masaletan nabaitzen ez ditudalako par-iri gozoen ildaska zoragariak; entzuten ez ditualako, zure eztaritik sortzen ziran abesti leun eta eztitsuak, nere barena pozez betetzen zuten abesti gogoargi ayek.

Garbiñe Irudipenak... irudipenak...

Ugarte-zar ¿Irudipenak?... ¡Jaungoikoak ala nai dezala! ¡Zu gabe, zer egin bear du, aiton gizagajo onek!...
(Ugarte-zar joaten da eskui-aldean atzetik. Begira gelditzen zayo Garbiñe).

Garbiñe Ez orlakorik esan, aitona! Poliki ibili. Bereala bagoaz.

IRUGAREN ATALA

GARBIÑE ta KONTXEXI.

(Garbiñe erdi negarez zuaizpean etzaten da)

Garbiñe ¡Lertuko nintzala uste nuen! ¡Nere naigabe samiñak baruan gorde nai, ta ezin! ¡Kanpora irtetzen, nai ez aren! ¡Au lanbidea! ¡Amatxo maitea, begira zayozu zerutik zure alaba biozmindu oni!... ¡Amatxo!

Kontxexi (Irtetzen da baseritik saski utsa esku batean eta zapia bestean daramazkiela) ¿Zer da? ¿Negarez?... ¿Gaizki al zaude?

Garbiñe ¡Ai Kontxexi!... ¡Au zorigaitza!

Kontxexi Bañan... ¿Nun dezu miñ?

Garbiñe Barenen... baren-barenen. Eta gorde nai, ta ezin gorde. Egiñalak egiñagatik azaltzen zait. Aundia bai-da...

Kontxexi ¿Oñazeak al dituzu?

Garbine Ez da biotzeko zaraztadak bezelako oñazerik. Ez eta naigaberik naitasunak sortzen ditubenen antzekorik.

Kontxexi ¡A! ¿Naitasun miñak al ditugu? Lanak, dagona dagon tokian, utzi ta senargai bila asi bearko gera.

Garbiñe ¡Kontxexi! Ni nagoen bezela ikusi ta, ¿jostaketan erantzuteko bai al dezu almena?

Kontxexi Ez, nere maitea, ez. Ez orengatik asaretu. Amak maiteko zinduen nik baño geyago; beste iñork, ez. Ori, egon zaite jakiñaren gañean.

Garbiñe Orengatik bada; ta amik ez detelako, ta nori aitorturik ere ez, ta barenen ezin gorderik itotzen naizelako, zuri esan nai nizun, eta zuk...

Kontxexi Nik... nik gaxo ta negarez ezin ikusi zaitudalako, alaitzeagatik esan dizut... Bañan esan, esan nai dezun guztia, Emen nago ni, edozer entzuteko.

Garbiñe Ez diozu ordea, Jaungoikoagatik, ezertxo ere aitatuko, ez aitonari, ez Ibon'i...

Kontxexi ¡Ai! ¿Ibon al da naspila onen guzien korapiloa? Bereala egingo ditugu bada orenak: lepazamaretik eldu ta, onera etori bearko du aidean.

Garbiñe Ez da ori, Kontxexi.

Kontxexi ¿Exkalu ori da beraz? Ezer bear duen guztian emen da gero ta... Alkarekin azi, arastaka ibiltzen ikasi ordurako biak alkarekin; gero beti biak...

Garbiñe Anai-arebak bezela.

Kontxexi Bai ba.

Garbiñe Eta nik, arebak anayari dion naitasunarekin nai niola uste nuen; bañan Lide'rekin ezkondu bear zuela jakin nuenean, ezagutu nuen nere naitasuna besterik zala.

Kontxexi Utzi dezala bada ura, ezkondu bedi zurekin, ta guzia egiña dago.

Garbiñe Ori ezin liteke...

Kontxexi ¿Maite dezula ez diozu bada?

Garbiñe Bai, ta maite detalako Ibon'en zoriona uts-utsa nai det.

Kontxexi ¿Eta?

Garbiñe Ibon'en zoriona, berak aukeratu duen emaztearekin dago.

Kontxexi ¿Lide txatxal orekin? ¡Ez xinixtu! Zurekin zori obekoa izango da. Bai, noski. Izango dan bezela.

Garbiñe Ez, Kontxexi, ez. Ibon'ek Lide maite du...

Kontxexi ¿Ta zu ez? Arotuko det oregatik.

Garbiñe ¡Ez! Ez diozu ezer esango; berari egiten diozun zapuzkeri bidegabeak nere biotza zauritzen du.

Kontxexi ¿Zer egin bear degu, bada?

Garbiñe Negarez itoko ba-naiz ere, lagundu Ibon'i zorionekoa izaten.

Kontxexi Bai. Ta zu orain zauden bezela, mintsu, gaxo, negarti...

Garbiñe ¿Ez al dezu ikusten maite detala?

Kontxexi ¿Eta nik ez al zaitut maite?

Garbiñe Nerea ordea egizko naitasuna da.

Kontxexi ¿Eta nerea zer da: txantxetakoa?
(*Ixil-aldi baten ondoren*):

Garbiñe ¿Ondo egingo al diozu Ibon'i? ¿ez al da orela?

Kontxexi Ala bearko... bestela asaretuko zera zu ta... Begira: nik nai detana da, zu ondo ikusi, ez egun oetan bezela ostiral-santuko arpegi orekin.

Garbiñe ¿Nola nai dezu bada?

Kontxexi Aitona ere oso larritua dago.

Garbiñe Ikusten det bai...

Kontxexi Orain ere zalantzan egongo da ezgoazelako.

Garbiñe Goazen bada (*Joanaz*) Ez diozu arpegi txarik jariko e?...

Kontxexi Ez, emakumea, ez...

Garbiñe Ondo egingo diyozu, e?, zapuzkeririk gabe. ¡Asko maite det-eta! Erotuko nintzake gaizki ikusiko ba'nu.
(*Zuaitz-aldeetik joaten dira*).

LAUGAREN ATALA

EGURTZA ta IBON.

(Egurtza atzeko zuaitz-aldetik agertzen da).

- Egurtza Emen ordaindua geldituko da, Ibon'ek egin ditan iseka. Zirtzil orek usteko zuen azpiratu ta lagako zuela gure etxe leñargiaren izen ospetsua. Orain jakingo du, txikitxua dala aukeratu duen areriyoarentzat (*Baseriari begira*) Gaur gabeen ikusiko dute Ugarte'ko orma zarak zer dan Egurtza...
(Une ontan' Ibon, eskuetan eize-tresnak dituela baratzako atetik agertzen da. Egurtza ixiltzen-da ta alkari begiratu txarak egiten dizkate.)
- Egurtza Txorua ta buru ariña, osabak deitu zizun...
- Ibon Osabak esango ziran; zuri ordea ez dizut esaten lagako.
- Egurtza Arunka oyek... emen... bai; Ugarte'rako an nunbait zera; baña, Larain-jauregira begiratzeko aña, etzera.
- Ibon Ugarte'n eta Larain'en bear diran neuriak betetzen ba-dakit.
- Egurtza Ez; Larain'go jauregian, gizona bear da, ta zu...
- Ibon ¿Ni?... ¿Zer?...
- Egurtza Zu, oraindik... gaya zera, besterik ez.
- Ibon Ongi diozu. Ala da. Zuk nai ez badezu ere, ni naiz Larain'go Lide'ren gizongaya.
- Egurtza Ori ikusiko degu.
- Ibon Ori ikusia dago.
- Egurtza Laxter jakingo da.
(Egurtza'k zuaitz-aldetik alde egiten du Ibon'ek pixka batean begiratzen dio, ta gero esaten du:)
- Ibon E! Utzi ditzagun alde batera zoro oren arokeriak. Naiko lan badauka bere buruarekin, Lide'k ezetza eman dionezkero.
Ikusi dezagun zer dioten Ugarte'tarak (*Baseriko atea joaz*) ¡Eup! ¿Ez al da emen iñor bizi? (*Pitin bat itxon egiñaz*) Ez dira emen... Sorora joanak izango dira... Agerbide ona, gaxo ez daudela beintzat. ¿Garbiñe, nola ote da?

BOSGAREN ATALA

IBON eta KONTXEXI.

(Kontxexi sartzen da zuaitz-aldetik eskuan saskia duela, Ibon'ek ikustean dio:)

- Ibon Ori da, ori: axeria atietan, eta etxean iñor ez.
- Kontxexi Etzaude zu, axeri txara (Garbiñe aseretuko ez balitz a zer nolakoak entzun bearko lituken.)
- Ibon Ez nintzan ni axeria; beste bat zan.
- Kontxexi Zure antza izango zuen.
- Ibon Nola nai ere, zuetakorik iñor etzegoan emen. ¡Oso arotu zerate, Kontxexi!
- Kontxexi Aroa ere, laxter apalduko litzake nere tokian jariezkero.
- Ibon ¿Zer ba?
- Kontxexi Ara: asnasa lasai artzen ere uzten ez didate. Urte-aro onek oso bildurtzen nau.
- Ibon Etxekoandretzak ere, bere alderdi txarak ba-ditu.
- Kontxexi Buru-auste aundiak beintzat, naiz zuek, gizonak, ez uste. Orain bertan, ematen det zurekin patxaran nagoala, ta sukaldea nere zai dago.
- Ibon Oretarako ezpairik gabe aitortzen degu, zuk bezin ondo, ez duela iñork jana maneatzan inguru oetan.
- Kontxexi Bai, ta ala ere etzera gaur bazkaltzera etori. Zure zai egon gera. Basauntza ere ba-genduen.
- Ibon Ni baño eiztari bikañagoak, ba-dira baztaretan.
- Kontxexi ¿Zer? ¿Gaur ere utsik al zatoz?
- Ibon Bai emakumea: goiz eta aratsalde ibiliaren ez det txori baten aztarnik arkitzen. Eta Larain'go jaunak eiztari azkartzat eduki nazan, zuregana nator, emen zakela betetzeko asmoz.
- Kontxexi Ez da aritzekoa ez Bi eize batean dabilzkitzu ta... bat ondo ez egitea...
- Ibon Orain ere, zerbait esan nai zenduke zuk.
- Kontxexi A! Nai detan guzia esango ba'nizu, entzun bearko zenituke zureak eta bi.
- Ibon ¿Zer bada?

Kontxexi	Ixilik obe degu egon (¡Ai! Garbiñe aseretuko ez ba'litz!)
Ibon	Esaidazu bada, zer eiza daukazun neretzat.
Kontxexi	Egia esan dezu ba, atarian axeria zegoala.
Ibon	Ni ez nintzala esan dizut.
Kontxexi	Zu añakoa etzan izango beintzat.
Ibon	¿Zergatik?
Kontxexi	Ark ezer eraman gabe alde egin duelako, ta zuk zerbait gabe ez dezulako joan nai.
Ibon	¿Zer daukazu bada?
Kontxexi	Erbi bat ba-det.
Ibon	Ekari.
Kontxexi	Ekari... (A zer nolakoa ekariko nizuken nik.) Ara nun datozen aiton-bilobak (<i>Eskuira begiratuaz.</i>)
Ibon	A! Bai. Ekari bada.
Kontxexi	Ba-nator, ba-nator (<i>Baserian sartzen da.</i>)

SEIGAREN ATALA

IBON, UGARTE-ZAR ta GARBIÑE.

(*Iluntzen asten da.*)

(*Ugarte-zar eta Garbiñe eskuiko atzeko aldetik agertzen dira. Ibon laxterka ayengana dijoa.*)

Ibon	Ikusten detanez, aitona, oso pixkor zaude.
Ugarte-zar	Pixkor izandua, Ibon. Sorotik ikusi, ta etori natzaizu.
Ibon	Ni joan bear nintzaizun, aitona. Ta, zu, Garbiñe, ¿ondo al zera?
Garbiñe	Bai, Ibon. Eskarik asko. (<i>Ibon'ek aitonari besotik eltzen dio, Garbiñe'k utzirik; ta irurak alkidun zuaiz-aldera dijoaz.</i>)

Ugarte-zar ¿Ondo? ¡Ondo nai!

Garbiñe Aitona...

Ugarte-zar ¿Ez al dezu ikusten, zer goibel dagon?
(*Ugarte-zar alkiari exeritzen da, ta Garbiñe bere ondoan.*)

Ibon Egia, Garbiñe: ¿zer dezu ain goibel egoteko?

Garbiñe Ezer ez...

Ibon Gaxo zaudela uste dezu ta orengatik iluntzen zera... Uste ori buruan artzea naikoa da gaxotzeko.

Garbiñe Ez, Ibon, ez; ez nago goibel. Aitonak eta zuk beti parez egon bear naizela uste dezute.

Ibon ¿Eta zergatik ez? Tira, tira, utzi alde batera lañu oek eta abestu ezazu, zuk egiten dakizun bezela, zure eztariko aots gozoa entzuteko zoratzen gaude ta...

Garbiñe Gaur ez, Ibon... (Baren ona daukat nik!)

Ibon ¿Zergatik?

Garbiñe Eztaria itxia daukat.

Ugarte-zar Utzi egin bearko diozu.

Ibon Gaur uzten dizut... baña biar bazkaitara etoriko naiz, eta...

Ugarte-zar Gaur ere zai egon gera.

Ibon Biar etoriko naiz bada, ta “*Txori eretxiñola*” entzun gabe, ez naiz etxera joango.

Ugarte-zar Bai, bai; biak abestu bear dezute, orenbeste aldiz egin dezuten bezela.
(*Barundik nekazarien abestiak entzungo dira. Abestuko dute Itxasoa*)
Ara; gure soroko langileak
(*Barenen abestuaz*)
Itxasoa laño dago
Bayona'ko alderaño;
Nik zu zaitut maiteago
Txoriak beren umeak baño.

Garbiñe (Aztu erazi biarean, abesti oek ere, nere naigabea beritzen dute)
(*Barenen abestuaz*)
Gure aita, oroiz dago
Lañopean gaberaño;
Nik zu zaitut maiteago
Araitxoak ura baño.

Ibon Orela abestuko degu biok, Garbiñe.

Ugarte-zar Zeñek lezakean oyen osasuna. Zerbait artuko al dezu, Ibon?

Ibon Eskarik asko, berandutu egingo litzaiket.

Ugarte-zar ¿Zergatik zera ain lari joateko?

Ibon Gabero, apal-ondoan, Larain'go etxera ikuste aldi bat egitera joaten naizelako.

Garbiñe (Zer oroipenak beritzen dizkidaten orain!)

Ugarte-zar ¡Egia! Ez nintzan oroitzen ¿Larain jaunari joan al zayo oso asarea?

Ibon ¿Oso asaretu zan gero, Garbiñe, egun artan?

Garbiñe Bai...

Ibon Zu oso ikaratuta zeunden.

Garbiñe Etzan gutxigotako... Egurtza jauna, joan zan bezela joaten ikusi ta (Ta nere barenak ikara aundigoa dauka oraindik, zuk aldendu didazulako).

Ibon Egun batzuetan, Larain, bekoki ilunez agertzen zan. Lide'k ordea...

Garbiñe (¡Lide!)

Ibon Lide'k limurtuko luke basoan dabilen katamotza ere... ta bere aita, jakiña. ¡Zein zoragaria dan, aitona!

Garbine (¡Au naigabea!) (*Garbiñe'k eskua bekokira eramaten du*)

Ibon ¡Eta izkuntza beriz eztitsugoa du! ¡Ikusiko ba'zenduke! Zeruan bertan ere, ez da ura baño aingeru ederagorik izango.

Garbiñe (¡Naita ere, ezin, ezin eraman det!)

Ugarte-zar (*Parez*) Ezagutzen det, Ibon.

Ibon Ez nintzan oroitzen onera maiz etortzen dala. ¿Zuzen al nago, ala ez, orenbeste goratzen detanean?

Ugarte-zar ¡Bai, Ibon! Ez dakizu zenbat poztutzen naizen...

Garbiñe (¡E!)

Ugarte-zar Zugatik eta beragatik poztutzen naiz. Biok onak zerate, ta zorionekoak izango zeratela derizkiot...

Garbiñe (¡Au zorigaitza!)

ZAZPIGAREN ATALA

Lengoak eta KONTXEXI.

(Kontxexi ateratzen da baseritik, erbi bat eskuan dakarela)

Kontxexi Ona nun dakartan, Ibon, zuretzako erbia, gizen eta eder askoa.

Ibon *(Erbia artuaz)* Ala da.

Kontxexi (Ez balitzake beste gajo orengatik) *(Garbiñe'ri begiratuaz)* ¿E? ¿Zu etzaude ondo, Garbiñe! Arpegiko margo guztia joana daukazu
(Bekokian eskua jartzen dio.)

Ugarte-zar *(Ikaratua)* ¿Zer dezu, nere biloba maitea?
(Eskutik eltzen dio) *(Ibon, aurean begira jartzen zayo. Garbiñek burua alde batera ta bestera eragiten du.)*

Ibon ¿Zer dezu, Garbiñe?

Garbiñe Ezer ez da. Txorabio txiki bat.

Kontxexi Etxera, ba, etxera. Zerbait bero artuko dezu.

Ibon Ori da, ongi dio Kontxexi'k.

Garbiñe Bañan...

Ugarte-zar Bai, bai: eraman zazute.
(Garbiñe altxatzen da, ta Kontxexi'rekin etxe aldera artzen du. Ibon'ek ateraño laguntzen dio.)

Kontxexi Goazen, bai, goazen.

Garbiñe Bereala emen naiz, aitona.

Ugarte-zar Obe dezu etxe baruan gelditu.

Garbiñe *(Ibon'i)* Aitonak ikusi ez ba'zuen alare... Ibon, jaren! zuzendu zazu oker au. Ez dezala uste aitona...

Ibon Utzi neri, Garbiñe. Ez estutu.

Garbiñe Eskarikasko.

Ibon Biar arte.

(Sartzen dira baserian Garbiñe ta Kontxexi.)

Ugarte-zar ¿Zer derizkiozu, Ibon?

Ibon Ori utsa da, aitona; edozeñi beste orenbeste gertatzen zayo.

Ugarte-zar Ez da gaurkoa bakarik. Zeinbat egun ba-dira nolabait dabilela. ¡Ibon! Nere zañetako odola emango nuke lengo alaitasunarekin ikusteagatik.

Ibon Ikusiko dezu bada, aitona; ez kezka izan.
(*Iluntzen dioa.*)

Ugarte-zar ¡Jaungoikoak entzun zaitzala! Aur orixen da Ugarte'ko itxaropen bakara. ¡Ibon! Areba bat bezela maitatzen dezula ba-dakit. ¿Zer egingo det beraz?

Ibon Lenbizi: ez beñepein estutu bear baño geyago. Nik alegiñak egingo ditut, bera ta zu alaitzeko.

Ugarte-zar ¡Bai, bai, sendatuko al da! Urteak duen arorik onenean, eguzkia iñoiz baño dizdiatzaleago dagonean, loreak beren ostuetan margo bizigoak agertzen dituztenean, eta txoriak beren abesti gozoenak abestutzen dituztenean, ezin liteke nere biloba bezelako gazte bat galdu.

Ibon Ongi diozu. Sendatuko da. Agur, aitona, biar arte... Esan bezela, zuen bazkaldar izango naiz.

Ugarte-zar Agur, Ibon. Zure zai egongo gera.
(*Ibon zuaitz-aldetik joaten da*)

ZORTZIGAREN ATALA

UGARTE-ZAR, GARBIÑE ta KONTXEXI.

Ugarte-zar ¡Bai mutil ona dala Ibon! Eta bere aurean guztia alai ikusten da. ¡Zer ote da gazte izatea!
(*Garbiñe Baseriti'k Kontxexi'rekin irtenaz*)

Garbiñe Emen naiz, aitona, igaro zait ongieza.

Ugarte-zar Poztutzen nau beri orek; baña goazen barura (*Ugarte-zar altxeaz*)

Garbiñe Ez, aitona; ongi nago, ta gañera, ondo dakizu, ez naizela etxe barunbean bizitzeko jayoa.

Kontxesi Bai, bañan emendik aurera emen egotea gabarekin geyegi jostatzea da, ta obe degu barura joan.

Ugarte-zar Etxekoandrearen agindua egin bear degu. Goazen barura.

Garbiñe Orela nai ba'dezu...

[illegible]

BEDERATZIGAREN ATALA

TXOMIN bakarik, gero GARBIÑE ta KONTXEXI.

(Zuaitz-aldetik azalduaz)

Txomin Ez dira bada oetxek, ni bezelako gizon batentzako egipenak. ¡Eta ala ere egin bear! ¿Nork esaten dio ezetz, Mañu aztiari... Batzuek ba-dira bai, esaten dutenak, atso sorgin ori, beste edozein bezelakoa dala, bañan, bada-ez-pada ere, nik ez det gaizki gelditu nai emakume oren aurean... Ez dakit gezurak, ala egiak izango diran; bañan, diotenez, makiñabat negar, kalte ta naigabe, gaizki nai dituen sendietan, jartzen omen ditu. ¡Eta gero ta ilunagoa ikusten det beriz nere egipena! ¿Zergatik Mañu'k berak esan ez dit zer egin bear detan, beste jaun arengana bialdu gabe, aren agindua egiteko esanaz? ¡Eta ura begiratua egin dit jaun arek! Oroitu utsaz ez dakit noraño ikara sartzen zaidan. Agindu-erazi dit, ez detala beñere agertuko bera ezagutzen detanik. ¡Obe nuke! Eta ez, sartu naizen naspilan sartuta egon... Zerbait diru ere eman dit; ez dakit zenbat dan bera... ¡Jaungoikoak nai dezala ni ontatik ondo ateratzea! (*Baserira alderatuaz*) Ausardia bear da gero, ni egitera noana egiteko... ta ala ere egin bear... Dar-dar nago. Aurera baño atzera nayago nuke egin, ta ala ere ezin utzi nezake (*Baseriko atea joaz*) ¡Eup! Ni egitera noana zitalkeri bat da, bai, jauna, ez da au gizonen egitekoa, ez jauna, ez, ez dan bezela, ez...

Kontxexi (*Baseriko ate-erdia iriki ta azalduaz*) ¿Nor da?

Txomin Ni, bai... zera, zu, zera... esayozu Garbiñe'ri datorela oneraño.

Kontxexi ¡Alajaña! Ez dezu gutxi uste, gure nexka daukagula or atarira
edozeñengana bialtzeko. ¡Ja, jai!

Txomin Ez, zera... ni, ez naiz ni...

Kontxexi ¿Zu etzerala?...

Txomin Bai ni, bañan zera..., Ibon'ek bigaltzen nau; bai, zera... Ibon'ek.

Kontxexi ¿Ibon'ek?

Txomin Bai, Ibon'ek berak, zera... Ibon'ek. ¿Bai al dakizu? Ibon'ek... e?

Kontxexi ¿Ibon al degu orain ere? Emango nioke nik. Atoz bada, atoz barura.

- Txomin ¿Barura? ¿Ez, ez! Atadian, esan du Ibon'ek, zera... atadian. Ibon'en aginduz itz bi esan bear dizkat atadian... zera... atadian...
- Kontxexi Deitzen ez ba'diogu aseretu egingo da ta, deitu egin bearko (*Barura joanaz*) ¿Garbiñe!
- Txomin Ibon'ek... bai, Ibon'ek... ¿Gezura da, ta ez txikia, Ibon'ek onlakorik agindu didanik! Ta nik ez det biotzik onlako zatarkeririk egiteko. Ta nik... ez... ez... ez... Baña, sorgiñak jakiten badu, betiko ondatuko nau. ¿Auxen da lanbidea! Agindutakoa egin bearko. Baña, Txomin, i ez aiz orelakoa, ez dezakek orelako dolorkeririkan ik egin. Egia diok; to, orela dek. Goazemak, emendik Txomin. Goazemak.
- Garbiñe (*Atadira irtenaz*) ¿Zer da?
- Txomin A, bai... zera... Ibon'ek, e... Ibon'ek; ba-dakizu... zera... Ibon'en aldetik, zerbait ezkutuko esan bear dizula; eta, zera, gaur bertan ¿e? gaur bertan, amarak aldian, zera... atadi onetara etoriko zaizula.
- Garbiñe ¿Ibon'ek? Bera emen zan aixtian eta...
- Garbiñe Eztakit, e? eztakit. Neri, zera, orela esateko agindu didate, ta... Agur. (*Igasi joaten da.*)

AMARGAREN ATALA

GARBIÑE bakarik, azkenean KONTXEXI.

- Garbiñe Aritzekoa da! ¿Zer esan nai ote dit? ¿Eta zergatik berak lenago esan ez dit? Nai ta nai ez... gaur esan bear didala... ¿Maite detala, ezagutu ote du? ¿Ta Lide utzi, ta ni artzeko asmoa ote du?... Lide'gatik txoratuta dago... oregatik... Onenean ez... Gizonak badakite orelako itxurak egiten. Izan liteke bere biyotza neregana aldendua egotea; Lide, aundizkia dalako emaztetzaz aututzea; ta orain nik daukatan gaitza ezagutu ta nigana biurtzea... Nik maite det, bai, egunetik egunera geyago maite det. Aztutzeko alegiñak egiñaren naitasun sutsuagoa sortzen da nere barenean. Berari ere ori bera gerta lizayoke... Usteko zuen ni, areba bat bezela nintzala beretzako, ta onela, ikusi nauenean, ezagutu du areba bat baño geyago naizela berarentzat... (*Bekokira eskua eramanaz.*) ¿Zer ari naiz ni? Nere burua zuzen ez dago... Ibon eta Lide alkarenganako jayoak dira; ta ni, Ugarte'ko alaba Ibon'entzat gutxi naiz... Ibon'ek nigan zerbait ezagutu ba'du... nik kenduko diot burutik eta emendik aurera ezkutuagoan nere barena edukiko det... Biotza: purukatuko det... ¿eta zer? Ugarte'ko alabak ezdu orelako azpikeririk egingo, ta gutxiago Larain'go Lide'ri... ¿Jauna, eman zaidazu egin bear detana egiteko indara! (*Goruntz begiak jasoaz*) Zeruan, zeruan izango da nere gogoak egingo duen indararen

saria. Bai, argi ikusten det ludi au utzi bear detala; ezagutzen det nere bizia nigandik dijoala.
¡Aitona! Zuk bakarrik kupida ematen didazu. Alegiñak egin ditut nere gaitza gordetzeko, bañan zure maitetasunak agertu du... Ez gera ordea luzaroan alkaren uruti izango... An goyen, ¡aitona! samintasunik gabeko zoriona izango da.

Kontxexi (*Baseriko atetik*). ¡Garbiñe!
Garbiñe Ba-noa. (*Baserira joanaz*).
Kontxexi Emakumea, bururik bai al dezu, gaxo zaudela garai ontan atadian egoteko.
Garbiñe Zaude ixilik, aitonak nabaitu gabe.
Kontxexi Emen gaude zer dezun ezin asmatu, bildurak aidean, eta zu...
Garbiñe Ixo, ixo, ixo... (*Sartzen dira baserian*)

AMAIKAGAREN ATALA

EGURTZA ta bi aurekuak

Zuaitz-aldetik, Egurtza, alde batera ta bestera begiratuaz, otsa ateratzeko bildurez bezela, ta atzetik beste bi gizon dituela, agertzen da. Bi gizonak atzera utzita bera aureratzen da esanaz:)

Egurtza Iseka ordaintzeko garaya, orain da.
Biyar goizean, nere etxeko leiotik itxasora begiratzean, aparetan lertzen dan olatu bakoitzak, bere izkuntz latzaz esango dit: “Egurtza, Lide ezin liteke Ibon’ena izan”-Lide’k negar egingo du... Nere biotzak ere egin du... ¡Kito! (*Eskui-aldera begiratuaz*.) Ez dator... ¿Ez ote du gizon arek nere agindua egin? Bai, egingo zuen; neregatik ez bada, Mañu aztiari dion bilduragatik. (*Beriz begiratuaz*) Oraindik ere ez dator. Ez da, ez, berandu, bañan zai dagoanari, aldirik laburena ere luze deritzayo.
¡Mañu! Gaiztoa da gero zorgin ori... ta nik orelakoa izan bear.
Nai zuen jakin nortzuk diran galdu nai dituanak. Ez ordea nik esan.
Azkar itxi diot aboa urea eman da. Aren begiak orduan, bi ikatz pixtuak ematen zuten... ¡Gaiztoa da gero atso zorgin ori! (*Eskui-aldera begiratuaz*) Ara, emen dator (*Bereala atzean dakarzkin bi gizonai esaten die:*) Atozte, jari zaitezte emen. (*Zuaitz baten atzean jartzen ditu. Gero berak gerian daukan ezpata ikuitzen du, ta dio:*) Ongi dago... (*Azkeneko begiratzea egiten du, ta bestien ondoan jartzen da.*) Orain, txintik ere entzun ez bedi.

IBON bakarik

Ibon (Eskui-aldetik agertzen da ta basariaren aurean jaririk dio:) Guztia lo dago, ta Garbiñe'k zerbait ezkutu esan bear ba'dit, bildurik gabe esan lezake. Ilargia bakara, izango degu aureko. ¿Zer ote du? Gero ta gutxiago ulertzen det zertara nakaren ni onera. ¿Zer zeukan, len izan naizenean, esan bear didana esan besterik? Bestela, bigar arte itxoin, eta ez ni garai oetan onera ekar-erazi... Onek itxurik ere ez du. ¿Edozeñek jakiñezkero, zer esango luke!

Gaxo dago, ta orengatik nator... bestela, ez nuke nik egingo, ta ez berari ere utziko egiten, orlako itxuragabekeririk. (Baseriko atean deituaz:) ¡Garbiñe! (Ibon alki aldera joaten da.) Au ere egin bearko degu... Deitu ta bereala alkidun zuaitz-aldera joateko, izan da artu detan agintza.

¡Gaxua, ez dabil ondo!

¡Nork ezagutu oraingo Garbiñe erori ta itzalduan, lengo Garbiñe lerden ta jostalua!

AMAIRUGAREN ATALA

IBON ta GARBIÑE gero EGURTZA ta bi aurekoak.

Garbiñe baseri-atean agertzen da, ta Ibon'en aldera aureratzen da. Ibon, beriz, Garbiñe'ri bila pixka bat dijoakio).

Ibon Gabon, Garbiñe...

Garbiñe Gabon, Ibon.
(*Biak alkidun zuaitz aldera egiten dute*).

Ibon Gau edera gaurkoa. Zeru guziya izartua dago.

Garbiñe Ala da. (*Ezeritxen dira ta Garbiñe'k dio:*) ¿Zer bear didazu?

Ibon Nik... ezer ere ez.

Garbiñe Bañan...

Ibon ¿Zuk zertara ekari-erazi nazu?

Garbiñe ¡Nik!... ¡Zuk deitu didazu!

Ibon ¿Nik?

Garbiñe ¡Zuk!
 (Oñtan Egurtza, laguntzen dioten bi gizonakin Ibon'i ta Garbiñe'ri
 aurean jartzen zayote.)

Egurtza	Naiz ixilka ibili...
Garbiñe	¡Ai!...
Ibon	¡E!...
Egurtza	Luzaroan obenlariak agertzen dira.
Ibon	Egurtza, zure azpikeri bat da au.
Egurtza	(<i>Bi aurekoai</i>) Ikusten dezute: Ibon, Jaunsoro-etxeko nagusia ta Garbiñe, Ugarte'ko alaba bakara, zuaitz onen azpian, gabez, bakarik arkitu ditugu.
Ibon	Bai, zerorek sortu dezun naspil zital baten bitartez.
Egurtza	Zuek zerate aureko, ta bear dan lekuan agertuko dezute.
Garbiñe	¡Aiton gaxoa! Lotsaz ilko zera...
Ibon	¡Dolora! ez bezteren ¡dolora! Ta Jaun izena daramazu!
Egurtza	Zuk bañon obetoago.
Ibon	¡Gezura!
Egurtza	Ikusiko dezu, au jakiten danean, Jaunsoro-izena, zein ederki goratua geldituko dan.
Ibon	Zure izen naskagaria baño garayago.
Egurtza	Ikusiko da. (<i>Garbiñe'ri</i>) Ta, zu, emakume: Neskatz-izena betiko galdu dezu...
Ibon	¡Gezura!
Garbiñe	¡Ai!
Egurtza	Biartandik, gure legeak agintzen duten bezela, zure burua, zapiatz estalia agertu bear dezu.
Garbiñe	(<i>Egurtza'ren aurean belaunikatuaz</i>) ¡Jauna, aren! Nitzaz kupitzen ez bazera, nere aitonatzaz egin zaite. (<i>Ibon'ek Garbiñe besotik elduta altxa ta baztartzan du.</i>)
Ibon	¡Ez! ¡Ez! ¡Ez! Altxa zaite, Garbiñe. Ori etzayozula ezer eskatu. Ori bezelako gizon petral bati etzayo eskatu bear... atera egin bear zayo biziarekin batean. Onela. (<i>Ezpata atera ta Egurtza'gana dijoa. Onek ere ateratzen du bere ezpata.</i>)
Egurtza	Atoz, gauza ba'zera.

(Bi gizonak atzetik Ibon eltzen dute. Au burukatzen da; ezpata ta soin-estalkia erortzen zaizka.)

- Ibon ¡Likixkeri, petralak!
- Egurtza Ez det nere ezpata (*Egurtzak ezpata gordiaz*) zikindu nai, zu bezelako gizon loitu ta galduaren odolean.
- Ibon Azpikeri egileak, beti izan oi dira bildurti ta ustelak, baña zu bezin nardagaria iñor ez.
- Egurtza ¿Ni?...
- Ibon ¡Zu, bai, zu!
- Garbiñe ¡Ai! ¡Ai! ¡Ai! (*Garbiñe korderik gabe erortzera dijoa. Ibon'ek jasotzen du*).
- Ibon Neskatz onen bizia zure bizkar joango da.
- Egurtza Emakume orek neskatz-izena galdu du.
- Ibon Ez du galdu, ez, naiz zuk, basati-orek, orela nai.
- Egurtza Len ere esan dizut, biartandik burua zapiatz estalia agertu bearko duela.
- Ibon Gezura diozu, ez du erurik, ez obenik eta nik bere izena goratuko det.
- Egurtza Bide bat bakara daukazu: ezkondu zaite berarekin.
- Ibon ¿Oren bila al zabilta azpikeri loitsu oen bidez?
- Egurtza Egin zioten iseka, Egurtzak ordaindu du.
- Ibon Gezura diozu, basati amoratu orek.
- Egurtza ¡Lide ez da Ibon'ena izango!
- Ibon ¡Petal... likixkeri... naskagari ori.
- Egurtza ¡Lide ez da Ibon'ena izango.

Bat-batetan zapia jaxten da.

IRUGAREN EGINTZA

Antzokian Ugarte'ko gela bat agertuko da. Eskuitara ate bat. Ezkeretara bi ate; lenbizikoa Garbiñe'ren gelakoa ta bigarena sukaldekoa. Leye bat ere izango da. Orman Itziar'ko Ama'ren irudi bat. Gañera mai bat, kutxa bat eta alki batzuek.

LENENGO ATALA

UGARTE-ZAR bakarik.

Ugarte-zar *(Exerita dago)* Ez dakit oraindik, ametsak ala egiak diran nere etxean gertatuak. ¡Nere etxea! ¡Ugarte!... Oraindaño burua altxeaz eta bekokia goyen jariaz esaten nuen; orma oek nere jayotza ikusi zutela. ¡Ta arokeria bidezkoa zan! Iñoiz ez da nere asabengatik on besterik esan. Beñere ez dute Ugarte'tarak, beren buruak, eguzkiaren argira agertzeko, lotsa izateko ezer egin. Inguru oetan dan etxerik zarenetakoa da, ta egundaño neretarak, gaizki itz egiteko biderik eman ez dute. ¿Eta orain? ¡Jaungoikoak daki, Ugarte'ko aitonarengatik esango dituztenak!... Nere antziñakoak irabazitako izen ona galdu detala beintzat... ¡Eta oretarako larogei urte izatera iritxi naiz! Jauna! Au jakiñik zergatik lenago atera ez ninduzun ludi negargari onetatik? ¡Nere bilobaren izen ona gordetzeko utzi ninduzun, eta nik ori egiten jakin ez det. Izen ori lurperatzen utzi diot, eta lotsaz estali ditut nere egun laburak. Eriotzak, eriotzak bakarik argituko du nere bizitz ilun au. ¡Atozkit eriotza! ¡Atozkit laxter! Izaera lotsagarri onen zama geyegizkoa da neretzat. Ez det geyago bizi nai. Il nai det... laxter... bereala... ¿Nondik? ¿Nola?... *(Alde batera ta bestera ero batek bezela begiratzen du. Azkenik leyo aldera begira gelditzen da esanaz:)* ¡A! Ortik lurera lau kana badaude... naikoa nere izaera bukatzeko. *(Altxatzen da, ta pixkaka, pixkaka makil baten laguntzarekin leyo aldera dijoa)*. Ez didate, bizi naizela, parik egingo! Il nai det. Bai, ¡il! ¡il!... *(Ontan orman dagoan Itziar'ko Amaren iduriari begiratzen dio, ta ikaratuta belaunikatuaz dio:)* ¡Zertara noa! ¡Ama, azketsi! ¡Azketsi, Ama! ¡Ez dakit zer egiten detan! ¡Naigabeak itxutua nauka! Nere burua ¡aren! zuzendu ezazu. Laritasun onetan, lagundu nazazu. ¡Ama! Zuk guztia zenezake, ta aiton kupigari onen otoitza, entzungo dezu... Bai, entzungo dezu, ta zure bitartez egipen garatz onetan egia argi azalduko da. Zugan daukat nere itxaropen guztia. *(Altxeaz)*. ¡Garbiñe gaxoa! ¡Ori zorigaitza etori zaizu gañera!...

BIGAREN ATALA

UGARTE-ZAR eta KONTXEXI.

(Kontxexi sartzen da ezkerreko lenengo atetik eskuan katilu bat dakarela).

Ugarte-zar ¿Nola dago?

Kontxesi Ez ongi... ¿Nola bada? Lenago mintsu zebilen jeta, ia orain! Neskatx bati egin lezayoteken kalterik aundiena egin diote.

Ugarte-zar Ongi diozu...

Kontxexi Eta guztia... Egurtza edo dalako orek, Ibon, Lide'ren senargaitzat ikusi ezin duelako. Ez da emen beste ezertxo ere.

Ugarte-zar Egia da. Nik siñisten det Garbiñe'k erurik ez duela, bañan eriaren aurean obenlari bezela agertu da; burua estaltzera beartu dute, galdurik neskatxaren izen garbia; ta Ugarte'ko etxearen omen beti goitua, oso lurperatu da.

Kontxexi Ez geyegi laritu. Argia oraindik azalduko da, ta egiaren indarak oraingo gezurak uxatuko ditu.

IRUGAREN ATALA

Lengoak eta IBON.

(Ibon, arpegi oso eroriarekin sartzen da eskuiko atetik).

Kontxexi Ara emen Ibon. Egurtzaren azpikeriaz ¿zerbait jakin al dezu?

Ugarte-zar ¿Ageririk ez dezu sumatu?

Ibon Alperik izan dira, eman ditudan uratsak... Nigana etori zan gezur-geznari edo *mandataria* bilatu ezin da. Garbiñe'rengana etoritakoa beriz...

Kontxexi Ori, Borda-zareko Txomin dala, ba-dakigu. Ongi ezagutu nuen. A! nere begia...

Ibon Ber bera da. Bañan nik bialdu nuela dio beti.

Kontxexi Gezurzulo, alena.

Ibon Ongi dakit nik Egurtza'ren egitekoak dirala oek.

Ugarte-zar Noski.

Kontxexi Diran bezela.

Ibon ¡Egurtza! Ederki jakin dezu, zure sarea jartzen. Erori naiz, elbi bat, armiarmak egindako sarean erortzen dan bezela. Nere burua altxatzeko indarik gabe gelditu naiz. Nere zorigaiztoan daramazkit Lide'ren biotz

zauritua, ta Garbiñe'ren bizi erukiz betea. Beñere ezagutu ez ba'ninduten obe zuten ¡Gaxoak!...

Ugarte-zar ¡Alperik dira negarak! Oker onetan zuzendu litekean pixka, al dan laxterena zuzendu egin bear da.

Ibon Zuk agintzen dezuna egingo det. Ba-dakizu, aitona, zure agintza betetzeko gertu nagola.

Ugarte-zar Orduan, Ibon, gaur bertan ezkondu bear zera Garbiñe'rekin.

Ibon Gaur bertan.

Kontxexi Garbiñe ezin liteke gaur elizara joan.

Ugarte-zar Etxean bear ba-da ere gaur, gaur ezkondu bear da ba.

Ibon Ongi da.

Kontxexi Emen dagoan goibeltasuna ikusita, etxe ontan gaur eztayak dirala esateak ere...

Ugarte-zar Gaur izango dira bada.

Kontxexi Andregayaren itxurari begiratuta ezkontza baño eriotza bertarago daukala ematen du... Gaur beintzat... Noan, noan sukaldera. (*Ezkereko bigaren atetik joaten da*).

Ugarte-zar Entzun dezu: Garbiñe gaizki dago ta bereala ezkondu bear zerate, apaiza gaur eguardia baño lenago ekariaz.

Ibon Orela egingo da. Lide'ri nion naitasun sutsuari, azken-agur samin eta garatz bat egiñaz, neroni joango naiz apaiz jaunaren bila, amarak alderako etori dedin...

Ugarte-zar Ez, Anton nere moroya bialdu ezazu... Uste osoa beragan eduki liteke.

Ibon (*Atera joanaz*) Orain bertan. (*Joaten da eskuitik*).

LAUGAREN ATALA

UGARTE-ZAR. Gero MAÑU.

Ugarte-zar Ez nuen gutxiago uste bere jauntasun eta zuzentasunagandik... Beste batek onenean, Garbiñe gaxoa, bere izen oinperatuarekin iltzen utziko zuen, geyago begiratu gabe... Bañan Ibon'ek ez; Lide'ri zion naitasun bizia baztareraturik eruaren itzal atsekabea zuzendu nai du. ¡Erurik ez dutela, ez det bada xinistuko beren gogo zintzoa ikusirik!

(Eskuiko atia pixkaka irikitzen da, ta Mañu aztiaren burua agertzen da).

- Mañu Oraindaño ongi noa... Aitona bakarik dago ta orek ni bultzaka bialtzeko añako indarik ez du. *(Sartzen da, atea beriz itxiaz).*
Zuregatik, Lide, Mañu aztiak bere burua espetxean sartzeko zorian jartzen du. *(Urats batzuek aurera egiten ditu ta aitonak begiratuaz dio):*
- Ugarte-zar ¿Nor da?
- Mañu Ni naiz. Ugarte'ko nagusiarekin itz egitera nator.
- Ugarte-zar ¿I? ¿I, Mañu aztiya? ¿Zertara ator? ¿Etxe au geyago nastutzera? Ua, uakik nere aurretik; ez diñat iri itzik entzun nai.
- Mañu Noizbait asmo onen bat izan ba'det, oraingoan da bada. Garbiñe'ren izen ona ta zure zoriona dakarzkít.
- Ugarte-zar Ez diñat xinisten. Orelako asmo onak badakarzkin, ¿zergatik ixilka ta iñork ikusi gabe sartu aiz?
- Larain Bestela oneraño etortzen utziko etziratelako...
- Ugarte-zar Eta ez geniñan ezer ere galduko.
- Mañu Entzun zaidazu, ta gero nai dezuna esan ezazu...
- Ugarte-zar *(Artara berak nai gabe, jari-erazi ba'luteke bezela).* Tira ba...
- Mañu Oroituko zera noski, orain amaren bat egun inguru oetan izan zan ekaitz ikaragarria... Gaba, inpernuko sarerak izan bear duen bezelako beltza zan... Eudia goyen-bean gelditzen etzan... Aizearen txistua eunka sugek belariaren ondoan jarita egingo lutekien otsa gogoratzen zuen; tximixtak, iluntasun ura noizean bein argiturik begiak ikaratzen zituzten; eta zuaitzen adarak aizeak ibilirik, diran pixti gaiztoen antzak egiten zituzten.
- Ugarte-zar Ez natxion gero ni, itz politak entzuteko.
- Mañu Ni ere ez, esateko. Etzaitut nekatuko.
- Ugarte-zar Ia, bada.
- Mañu Mañu aztia aldapa gora zijoan, emen erori ta an altxa, bere txabolara... Noizbait ere iritxi nintzan, eta atea ondo itxi ondorean, nere jantzi bustiak aldatu nituen. Gero sua pixtu ta epeltzen nengoela...
- Ugarte-zar ¿Eta zer ajola zaitan neri, ik gau artan egin itukanakgatik?
- Mañu Orain esan bear detanagatik bai.
- Ugarte-zar Esan zan ba-da, esan bear ba-den.

Mañu Neretzako oso gogor dalako atzeratzen naiz zerbait.

Ugarte-zar Eskea ba-den, eska zan... eta ua emendik. Ire beriketak entzuteko gogorik etzeukanat.

Mañu Ez det ezer ere eskatzen, entzun ezazu baizik. Zure onagatik ari naiz.

Ugarte-zar ¿Zer, bada?

Mañu Ara su-ondoan nengoela ba, esan detan bezela itz otsa atadian somatu nuen. Lenengo nere iduripenen bat izango zalakoan, ez nuen artakotzat artu... Gero, argi ezagutu nuen ordea, etzala nere irudipena. ¿Nor ote zan? Etsayak eta nik...

Ugarte-zar Biak etsai asko.

Mañu Bakarik izan genezakegun, gau artan, mendi ura igotzeko ausardia... Bereala atera nintzan nere zalantzetatik, atean deitu zutelako, esanaz:- “Mañu aztia, iriki ezazu, zure bearean naiz ta”.- “Nor zera?”-galdetu nuen.- “Egurtza jauna”-erantzun zuen.

Ugarte-zar ¿Egurtza?

Mañu Egurtza, bai, Egurtza.

Ugarte-zar (*Lari-lari Mañu'ri begira jariaz*): Eta... eta... ¿zer geyago?

Mañu Begiratu nuen, ate zirikitotik eta iru zaldizko zekazkien aurian.

Ugarte-zar Eta aetakoenbat...

Mañu Itxegon. Itz egin zuena jatxi zan, eta argi ezagutu nuen jantzian jauna zala.

Ugarte-zar ¿Egurtza...?

Mañu Noski. Iriki nuen atea, ta bereala jaun arek bestiai esan zioten: “Itxegon ezazute”.

Ugarte-zar ¿Eta iri, iri zer esan ziñan?

Mañu Sartu zan geyo gabe nere txabolan eta su-ondoan jariaz esan zidan: Arituko zera Mañu, gau onekin zuregana etortzeaz. Jakin ezazu bada, ekaitz ikaragari au, utsa dala, nere barenen dagoen aldamenean jariezkero”.

Ugarte-zar ¡Inpernuko suak bear lituke bere barenean!

Mañu Zion gañera: “Gizon batek itzal egiten dit, eta bera galdu bitartean, kixkaltzen dago nere odola. Jakiñikan, zuk, txarkeriak ederki ta eskutuan egiten dakizula, zugana nator egin bear detanaren galdez”.

Ugarte-zar Jauna bezelako laguntzalea.

Mañu Gero azaldu zidan, emakume bat autu zuela emaztetzat.

Ugarte-zar Bai...

Mañu Eta bere aitak baimena eman ta gero, emakume orek ezetza eman ziola, beste bati bayetza lenago eman ziolako.

Ugarte-zar Ala den...

Mañu Nik par egin nion...

Ugarte-zar Para...

Mañu Esanez, ur gutxi bear zuela itotzeko; ta naikoa zuela, galdu nai zuen gizon ori, neskatxen batekin bakarik, gabea nunbait jari-erazitzea...

Ugarte-zar Ik sortu unan...

Mañu ¡Eta berak eta beste bi gizonek ikusirik bear zan lekuan salatzea!...

Ugarte-zar ¡Zorgiñ madarikatua!...

Mañu Gizon arek, nor baldin ba-zan, neskatx ura emaztetzat artu bearko zuela.

Ugarte-zar I aiz, i, nere Garbiñe'ren izen ona galdu duena.

Mañu Bai, baña...

Ugarte-zar ¡Zorgin nazkagaria!

Mañu Kendu bezela, biurtuko diot.

Ugarte-zar Ago ixilik, biziarekin ere ez den ordainduko egin denan gaitza.

Mañu Nik ez nekien...

Ugarte-zar Lepua biuritu ta ere ez.

Mañu Nik ordea...

Ugarte-zar Atso zorgin ori... ¡lertuko aut! (*Ugarte-zarak jotzeko zorian makila altxatzen du, ta Mañu'k oju bat egiñaz alde batera egiten du.*)

Mañu ¡Ai!

Ugarte-zar ¡¡Txiki-txiki egingo aut!!

BOSGAREN ATALA

Lengoak IBON eta KONTXEXI.

(*Ibon eskuiko atetik ta Kontxexi eskereko bigaren atetik laxterka ateratzen dira.*)

Ibon	¿Zer da?
Kontxexi	¿Zer da emen?
Ibon	¿Zer egiten du atso onek?
Ugarte-zar	Ori da, Ibon, petral ori, guri kaltea egin diguna.
Kontxexi	¡Zorgin ori?
Ibon	¿Zu?
Mañu	Ni... baña...
Ibon	Esaidazu laxter: ¿zer, nola ta noiz, egin dezu? (<i>Ibon'ek esaten ditu itz abek, zorotz-zorotz Mañu'ren aurean jariaz.</i>)
Mañu	Egurtza'k, nik erakutsita; gezur-geznari edo mandatariak nik aukeratuta, arapatu zinduzten gau artan, eta gero salatu zaituzte. Nik antolatua zan guztia.
Ugarte-zar	¡Atso zital, gaxto orek!
Ibon	(<i>Aitona laztanduaz</i>) ¡Au poza, aitona! Gure eru-eza agertu da.
Kontxexi	¡Aitona! Ora egia azaldu.
Ibon	¡Poztu zaite!
Kontxexi	¡Poztu gaitezen!
Ugarte-zar	(<i>Ibon'i alde batera egiñaz</i>) Gaztiak zerate, ta gutxi ikusten dezute.
Ibon	¿Zergatik?
Kontxexi	¿Nola?
Ibon	Berak diyo.
Kontxexi	Berak aitortu du.
Ugarte-zar	¿Eta nork xinistuko dio Mañu aztiari?
Kontxexi	Izan ere...

Ibon ¡Ala da! Bere itzak indarik ez du.

Mañu Banekien zer gertatuko zan, eta orengatik joan naiz lenago, bi gezur-gezlari edo mandatariakin Larain jaunarengana, ta bere aurean azaldu degu egia, dana dan bezela aitortuaz.

Ugarte-zar ¿Eta Larain'go jaunak zer esan du?

Mañu Ezaguturik egia, Garbiñe'ri neskatxa'ren izen garbia biurtu bear zayola burua estaltzen dion zapi lotsagaria kendurik.

Kontxexi ¡Alaere! Jaungoikoari eskerak!

Mañu Emen dezute laxter Larain'go jauna bera, egindako okerak zuzentzera. Bereala datorela esan dit.

Ibon Aitona: ¿orain poztu al gintezke?

Ugarte-zar Orain, bai.

Kontxexi Garbiñe'ri beri on au ematera noa, nagusi; ta gañera ekari-erazi egingo det.

Ugarte-zar Zoaz, bai, zoaz... ¡Itziarko Ama, eskarikasko! (*Kontxexi joaten da ezkeroko lenengo atetik*)
Ugarte'ko orma zarai biurtuko zayote orain asabengandik jasotako izen ona.

Ibon Eta zu, Mañu: ¿zer burutasunek eman dizu agerpen au egiteko?

Mañu Ez nekien nor zan Egurtza'k galdu nai zuen gizona. Gero jakin det, zu ziñala, ta naspil ura Lide'ren kaltean zala. Ta nik Lide'ri kalte txikiena egin baño len utziko nuke nere besoa moztutzen.

Ibon Eskarikasko.

Mañu Orengatik egin detana egin det izan al detan azkarena, naiz gero espetxean nere burua ikusi. Lide da neretzat iñor ez bezelakoa.

Ibon Beste askorentzat ere bai.

Mañu Gaiztoa ba-naiz ere, ez diot Lide'ri kalterik egingo.

Ugarte-zar Ire bizian, gaur egin den lenengo gauz on bat.

Mañu Esanak esan, ba-noa. Txarkeriak egiten ba-ditut, Lide'ri ez... Lide'ri ez... ez. (*Joaten'da eskuiko aldetik.*)

SEIGAREN ATALA

UGARTE-ZAR, IBON, KONTXEXI ta GARBIÑE.

- Ibon ¡Aitona! Gure atsekabeak alde egin du.
- Ugarte-zar Bai. Ibon. Ez naiz beñere aztuko zure gizontasunaz. Gizon bezela azaldu zera.
- Ibon Noski. Egurtza baño gizonago.
- Ugarte-zar Ez zaidazula aitatu ere izen lotsagari ori.
(*Garbiñe, burua zapiaz eztalia, doi-doi Kontxexi'ren besotik dator. Ibon'ek bi alki jartzen dizka: bat exeritzeko ta bestea oñak ipintzeko.*)
- Ibon Ara Garbiñe. ¡Gaxoa! Burua estalia dauka oraindik.
- Ugarte-zar ¡Biloba! Zoriona gure etxean sartu da. Burua estali gabe ibiltzeko eskubidea ba-dezu... Zure eru-eza agertu da...
- Ibon Bai, Garbiñe; egin diguten azpikeria argi azaldu da, ta ez daukazu zergatik burua estali.
- Kontxexi (*Garbiñe'ri buruko zapia kentzera egiten du, esanaz:*) Beñere etzuen zapi onek estali bear, neskatzik garbienaren burua.
- Ugarte-zar Etzayozula kendu, Kontxexi. Jari diotenak kendu dizayotela.
- Ibon Ala da.
- Ugarte-zar Alaitu zaite Garbiñe. Eru-eza azaldu dan bezela, sendatu ere laxter egingo zera; zure aitonaren azkeneko urteak alaitzeko, Ugarte'n lenagoko egun zoragariak berpixtutzeko... Izen ona biurtu dizun Amak, osasuna ere biurtuko dizu.
- Garbiñe Egin lezake, aitona, berak orela nai ba-du; bañan... Goiko-jaunak beregana eramane bai baldin ba-nau... ¿zergatik guk ezetz esan bear diogu? (*Ugarte-zar bigarengo ate-aldera negarez dijoa, ta esaten du:*)
- Ugarte-zar Lore igartua ez da berpixtutzen. (*Joaten dira Ugarte-zar ta Kontxexi atzetik sukaldera.*)

ZAZPIGAREN ATALA

IBON eta GARBIÑE.

Ibon ¡Au poza Garbiñe! Egin diguten azpikeria agertu da, garbi gelditu gera, ta orain Lide maite nezake, batere kezka gabe. ¡Bai zorionekoak gerala!

Garbiñe Bai... Lide... zu... orela izango zerate...

Ibon Ta zu ere bai. ¡Orelako beri ona artuta etzera geyago poztutzen?

Garbiñe Bai, Ibon; neretzako zorionik aundiena da nere burua garbi ikusten dutela jakitea, ta nere eru-eza agertu dala ikastia.

Ibon ¿Nola zaude ba ain eroria?

Garbiñe ¡Gaxo nago! Emen, biotz-aldean, orelako laritasun bat nabaitzen det... eta nere eriotza...

Ibon Eriotza ez, aitatu ere ez dezu egin bear.

Garbiñe Bai, Ibon, bai.

Ibon Gaxotasuna bakarik, ta ori Egurtza'gatik. A! baña utzi neri. Nere ezpatak arapatuko du.

Garbiñe ¡Ibon! Aren eskatzen dizut, etzazula orelakorik egin. Nik azketsi diot, zuk ere orela egin bear diozu, Ibon.

Ibon ¡Garbiñe! Arek zure osasuna galdu du.

Garbiñe Arek... ez...

Ibon ¿E? ¿Nola?

Garbiñe Lenago ere gaxo nengoan... Agindu zaidazu, Ibon, ez diozula gaitzik egingo...

Ibon Zuk orela nai ba-dezu...

Garbiñe Nik agintzen dizut.

Ibon Nai dezun bezela egingo det.

Garbiñe Bai; ori egin bear dezu. Ibon; gaizki nago...

Ibon Zuk uste dezun aña ez.

Garbiñe Bai, bai. Eta apaiz jaunari etortzeko esan bear diozu; laxter, uste det, bere laguntza ongi iltzeko bearko detala...

Ibon Apaiz jaunari, gure, uste zan ezkontzarako deitu zayo, ta etoriko da. Baña ba-dirudi, Garbiñe, zeorek eriotzari deitzen diozula...

Garbiñe Ez... ez...

Ibon Lide ta ni zorionaren jabe egingo gera, ta zu ere zoriontsu egingo zaitugu.

Garbiñe Bai, bai; zorionekoak izango zerate, ta ori izango da neretzat ere zorionik xamur eta atsegiñena.

Ibon Ba-nekien, Garbiñe.

Garbiñe Zuek ondo, alai, pozkiro zeratela jakiteak, nere biotzaren zale guztiak aseko ditu.

Ibon Laxter ikusiko dezu ba-da. Larain jauna da, zure eru-eza aitortu bear duen ekadoya; bere bila noa, ta gerokin etoriko da Lide ere, gure atsegintasun pozgaria emen ikusi dezazun.

Garbiñe Zoaz, bai; onela ikusi nai zaituztet.

Ibon Bereala emen gera bada, ta jakingo dute guztiak: “Lide Ibon’ena izango dala”

Garbiñe Bai, orela izango da.

(Joaten da Ibon eskuiko aldetik)

ZORTZIGAREN ATALA

GARBIÑE bakarik.

Garbiñe Nere barunean gertatzen dana, neronek ez dakit, eta ezin ulertu det...
 ¿Pozik nago?... ¿Ilun nago? Poza ta samintasuna nere gogoan, biak batean daude. Neskatzaren izen garbia neregangatzea pozik aundiena da. Bañan... gezurezko erua nere gain zegoen bitartean, Ibon’en jabe izateko bidean negoen. Orain betiko alde egin dit. Erurik gabe gelditzen naiz, baña maite detan gizona gabe ere bai. Eruaren azpian negoenan gizon ori neretzako nuen. ¡Zertarako ordea naitasuna besterentzat ba-zeukan! Buru guztia nastu bear zait, zer esaten detan ere ez dakit. Nere biotza, eriotzaz joa dago Ibon’ek Lide maite zuela ezagutu nuen egunetik. Bai, Ibon, zuk jakin gabe, lokari gogorez bezela lotua zeukazun nere biotza, ta nik azkatzeko egin detan indarez purukatu da. Ezin bizi niteke: gero ta gero nere asnasa lariago ta estuagoa da. Naigabeak itotzen nau. Ludi ontatik ba-noala ezagutzen det.
 ¡Aitona! azkeneko urte oetan zure gogoa pozez bete nai nuen, len igarotako naigabeak ordaintzeko!... ¡Ta nik... nik eman bear dizut aundienetako bat!

BEDERATZIGAREN ATALA

GARBIÑE, UGARTE-ZAR eta KONTXEXI.

(Ugarte-zar ta Kontxexi sukaldetik ateratzen dira.)

- Ugarte-zar ¿Bakarik al zaude, Garbiñe?
- Kontxexi ¿Bakarik? ¿Zer egin du bada Ibon'ek?
- Garbiñe Joatea egin du. Orain arte emen egon da.
- Ugarte-zar Jakin izan ba-nu bakarik zeundela...
- Garbiñe Ba-dakizu, bakarik egonaren, beti nere gogoan zaitudala, ta nere ezpañetatik zure izenak alde egiten ez duela.
- Ugarte-zar ¡Bai gozoa zerala, Garbiñe! Zure itz eztitsu gabetanik, ¿nola naidezu ni bizitzea?... ¿Nola zaude?
- Garbiñe Gaizki, aitona, gaizki.
- Kontxexi Etzazula orelakorik aitatu ere.
- Garbiñe Bai, gaizki nago.
- Ugarte-zar Orain guztia zuzendu dan onetan etzera nere aldamenetik joango...
- Kontxexi Zer joan bear da.
- Garbiñe Zuretzako minkaitza bai da, ni zugandik urutiratzea; neretzako ere, ¡aitona! zu minkaitz ikustea, da, garai ontan, biotza geyena samintzen ditana... Bestela, erbeste onetako neke ta garaztasunak zeru edereko zoriontasunaz aldatzea ez da negargaria, pozgaria baizik.
- Ugarte-zar *(Negarez)* Ondo diozu, erbeste negargarian bizi gerala; zuk loretzen zenduan neretzat, ta zuk alde egiñezkero, ni ere laxter izango naiz zure ondoan. *(alaituaz)*
- Kontxexi Tira, tira, utzi itzazute izketa negarti oek; eta emen, poztu, alaitu egin bear da.
- Ugarte-zar Ongi dio, Kontxexi'k. Orela da
- Garbiñe Aitona: ezin ordea.
- Kontxexi Bai, bai: egiñalak egin bear dira. Erueza azaldu danezkero atsegin agertu bear gera.
- Ugarte-zar Ori da, gure poztasuna ezagutu dedin
- Kontxexi Bereala emen da Larain'go jauna...

Ugarte-zar Izan ere, Larrain'go jauna...

Garbiñe Bai... Larain'go jauna...

AMARGAREN ATALA

Lengoak, LARAIN, LIDE, ANDERE-LAGUNA, IBON, ZAINDARIA ta GUDARIAK.

(*Eskuitik atea irikitzen da, agertzen da Zaindaria, ta besoa altxeaz esaten du:*)

Zaindaria Larain'go jauna
(*Sartzen dira gelan Larain, Lide, Andere-laguna, Ibon eta Gudariak*)

Ugarte-zar ¿Zu ere etori zera, jauna?

Larain Larain'go jaunak, egin bear duena, beti egiten du, eta gaur nere eginkizuna etxe ontan dago.

Ugarte-zar Eskarikasko.

Larain Aurean zeraten guztiok entzun ezazute: Ezpagabeko agiriak, Garbiñe'ren eru-eza garbi azaldu dute, ta nik, ekadoi bezela, erabakitzen det beri au zabaldu dedila biztanle guztien artean. Beraz, Garbiñe, garbi ezagutzen zaitugu, ta garbi azaldu bear zera. Au orela izanik, zaindaria, ekadoyaren izenean, kendu zayozu buruko zapi ori.

Lide Ez, aita; neronek kenduko diot...

Larain Nai dezun bezela

Lide (*Lenbizi musu emanda kentzen dio Garbiñe'ri buruko zapia lurera boteaz*) Zu aña poztutzen naiz, Garbiñe.

Garbiñe Sinisten det, Lide.

Larain Orain, ekadoyaren erabakia ikusirik ¿Ugarte'ko alaba Garbiñe, ezagutzen al dezute neskatz garbi bezela? (*guztiak eskuiko besoa altxeaz diote:*)

Guztiak ¡Bai!

Larain Orela legearen aginteak osatuko dituzute. (*Garbiñe'rengana aureratuaz*) Nere zoriona.

Garbiñe Eskarikasko jauna.

Larain Ez dezu zer esker emanik. Zikindua bezela agertu ziñanean, ni izan nitzan aurena zure gain, gogorkiro legea botatzen. Ezaguturik ez dala orelakorik;

nik laguntzat neukan baten azpikeria besterik ez dala, ni naiz lenena, zure buruko-estalki lotsagaria kentzen, zure eru-eza aitortu ta zure izena goratzen. (*Gero Ugarte-zar'engana joaten da*) Zuri ere nere zoriona, Ugarte.

Ugarte-zar Eskarikasko... Alderdi oretatik nere biotza zanpatzen zuen ari aundi bat, kendu ba-lidateke bezela nago... bañan, ikusten dezu jauna, nere bilobak zer itxura daukan... ¿Galdu bear ote det?

Larain Eraman duen galbidearen lotsak gaxotu du, poz onek sendatuko du.

Ibon ¿Jakiña, aitona! Oraindik... (*Irurak izketan bezela*)

Garbiñe Zuk ez dakizu, Lide, zenbat eskertzen dizudan, ni ikustera etortzea...

Lide ¿Zer uste zenduen? ¿Ni zutzaz aztuta negoala? Lenago etori ez ba-naiz, nere aitak utzi ez didalako izan da...

Garbiñe Ongi egin du zure aitak.

Lide Bañan... Utzi ditzagun orain izketa ilun oek eta alaitu zaite Garbiñe...

Garbiñe Alperik...

Lide Etorkizun edera daukagu aurean.

Garbiñe Zuk bai, Lide...

Lide Bai zuk ere

Garbiñe Nik ere bai... emen ez ordea: goyen.

Lide Ez; Garbiñe. Emen eta goyen. Zuk oraindik osasuna ta zoriona iritxi bear dituzu...

Garbiñe Gogo gaitzak, ez daukate emen sendagairik (*Atadi-aldeetik batek "Itxasoa" abestutzen du.*)

Barenen (batek) Itxasoa laño dago
Bayona'ko alderaño
Nik zu zaitut maiteago
Txoriyak beren umeak baño

(*Abesti-bitartean, Garbiñe'k Ibon'i begiratzen dio, Lide'k ikusten du, ta eskua bekokira eramanez esaten du beretzako:*)

Lide (¿Zer gogoratu zait? ¿Orela ote da?)
(*Abestiya bukatzen da, ta Garbiñe'k bakarrik ba-legoke bezela esaten du:*)

Garbiñe (Zorionekoak, beren naitasuna agertu lezatekeanak)

Lide (*Garbiñe'ri begiratuaz*) Garbiñe...

Garbiñe ¡E!

Ugarte-zar ¡Zer da!

Kontxexi ¿Zerbait al du?

Lide Ez... ez da ezer... (*Ixil-aldi txiki baten ondoren*) Garbiñe: zuk, Ibon maite dezu... (*Garbiñe'k asnas lari bat egiten du, ta ezer esaten ez du*) Orain ezagutzen det zure gaitza. ¡Garbiñe gaxoa!

Garbiñe Au eskutuan neukala, il nai nintzan...

Lide Ondo gordea zeneukan.

Garbiñe Zuk ezagutu dezu... nik... aitortzen det.

Lide Orengatik orelako aldaketa zure arpegian izan zan.

Garbiñe Ibon'ek maite zindula ezagutu nuenetik. Ezin... ezin aztu.

Lide Eta ala ere alegiñak egin dituzu, ni Ibon'ekin batutzeko.

Garbiñe Ori bai... al guztia.

Lide Ez dizut beñere bear bezela eskertuko
(*Garbiñe'k beriz ere asnas lari bat egiten du, ta doi-doi esaten du:*)

Garbiñe Garbiñe'k egiten dizun azkeneko eskaria da, bere aitorpena ezkutuan eduki ezazula...

Lide Nere barenean ezkutatua geldituko da.

Garbiñe Bai... Lide... ni banoa... Ibon...

Lide (*Deituaz*) Ibon... Ibon...

Ibon (*Alderatuaz*) ¿Zer dezute? ¿Zer dezu, Garbiñe? (*Garbiñe'k Lide ta Ibon'en eskuak alkartzen ditu esanaz:*)

Garbiñe Ibon... Lide... Zuen otoitzetan, Garbiñe'tzaz aztu etzaitezte.

Ibon Beti gogoan idukiko zaitugu.

Lide Beti zutzaz oroituko gera.

Garbiñe Bai... Zorionekoak izan zaitezte... ¡a!

Lide ¡Aitona! ¡Aita! (*Garbiñe'ren inguruan jartzen dira*)

(Abesti au entzuten dan bitartean zapia poliki-poliki jaxten da.)

AMAYA.